



Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzea

Proposamenen txostena

2024ko azaroa

Txosten honetan jaso dira Oiartzungo Elizalde auzoko ELI-6 eremuko Plan Partzialean genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak, Oiartzungo emakume zein herritarrekin egindako parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenetan oinarritu eta lanketa teknikoen bitartez osatuak. Txostena beste dokumentu honekin osatzen da:

- **Prozesuaren memoria.**



Sustatzailea
Oiartzungo Udala



Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** dirulaguntza jaso du.



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes



Nola txertatzen da Genero Ikuspegia hirigintzan?

¿Cómo se integra la Perspectiva
de Género en el urbanismo?



projekta.eus
Gizartea helburu



Genero-ikuspegia hirigintzan eta inguruneen diseinuan txertatzea
Integración de la perspectiva de género en el urbanismo y en el diseño de entornos



Aurkibidea

1	Sarrera	4
2	Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak	7
3	Sustatzailearen lehen alternatibak	25
4	Genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak	29
5	Ondorio orokorrak	59

1

Sarrera



(Dirulaguntza-eskaerarako memoria)

Dirulaguntza arautzen duen 2023ko uztailaren 11ko Aginduak aurreikusitako aukeren artean hiri-antolamenduko tresnen lanketa eta espazio publikoen antolaketa, aukeratu dira. Izan ere, Elizaldeko ELI-6 eremuko antolamendu xehatukoa, Plan Partziala, hurrengo hilabetetan idatziko denez, ELIZALDE auzoa osotasunean genero ikuspegitik aztertzea nahi da.


Arrazoia: Oiartzunek 6 auzo ditu eta Elizalde da erdi-gunea. Udalerrri sakabanatua da, auzoak orokorrean bailararen behealdean daude (Arragua, Ugaldetxo, Iturriotz, Altzibar eta Karrika), Gurutzeren salbuespenarekin, azken hau Irungo bidean altuera gehiagora kokatzen delako.

Elizalden udalerrri mailako ekipamendu nagusiak daude, hezkuntzakoak (2 ikastetxe, Haurtzaro ikastola eta Elizalde herri-eskola), kiroltakoak (kiroldegia, Mandalensoro, kanpoko piztina), administratiboak (udaletxea), kulturalak (liburutegia, Landetxe kultur ekipamendua), eta osasunekoak (anbulategia), horrezaz gain, hilerria eta beilatokia ere.

Oiartzungo udalerrri orotara 4.427 etxebizitza daude, eta horietatik 1.438 Elizalden kokatzen dira, guztien heren bat beraz. Horrezaz gain, GI2134 foru errepidea bertatik igarotzen da, Arragua-Elizalde-Gurutze ardatza lotuz, eta bailara beheko auzoak eta erdigunearen lotura egiten duten udal sareko errepideak zeharkatzen dute, Rafael Pikabea Ugaldetxotik, Manuel Lekuona eta Kontzejuerreka hegoaldeetik, Elorrondo eta Bidagaina Altzibartik.

Ugaldetxotik datorren Rafael Pikabea ardatzaren hegoaldera, Mendibil eta Tolarieta auzogune eta Elorrondo, ikastola eta hilerriaren artean 60.000 m² inguruko lursailak osatzen dute ELI-6 eremua. Bertan dotazio eta ekipamendu berriak kokatzeko asmoa dago.

Hitz batean, orain arteko Elizaldeko hiri-gunea eta egingo zaion zabalpen horren arteko uztarketa modu egokian egitea garrantzi berezia izango du, zuzenean 200 familien bizimodua baldintzatuko duelako, zuzen zuzenean, eta Elizalden bizi diren gainerako 3.000 lagunengatik maila ere hobetuko duelako.



(HAPOaren Araudiaren fitxa urbanistikoa)

Operazioarekin espazio libre nahiz berdegunetarako erabilera eta jabari publikoko beharrezko zoruak lortzea programatzen da, Aurrerapidean ezarritako lurralde ereduarekin hasteko, Oartzun ibaiaren inguruan hiri inguruko ibai-parke handi baten inguruan auzo desberdinak kokatzen dituen hiri ekosisteman oinarritzen dena. Halaber, Elizalderen hiri egituran zehar aurreikusten den oinezko nahiz bizikletentzako ibilbidearen integrazioa eta Iturriotzekin lotzea programatzen da, ezarritako Ereduaren ikuspuntu orokorraren barruan. Bizitoki-promozioarekin sistema orokorreko nahiz lokaleko zuzkidura publikoetarako zoruak eta lokalak lortzea aurreikusten da (beilatokia, haurtzaindegia, biblioteka, azoka).

2

Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak

Segurtasuna erasoen eta mehatxuen aurrean

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



SEGURTASUNA ERASOEN ETA MEHATXUEN AURREAN

Eraso eta mehatxu gehienak gizonezkoek egiten dituzte. Hau esanda, erasoen aurrean ez-seguru gisa hautematen diren lekuek ere pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik —besteak beste— neska eta emakumeengan. Gainera, kontuan izan behar da arazo honek zaintzaileen lana areagotzen duela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ERASOEKIKO SEGURTASUN handiagoa behar duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Erasos edo mehatxu fisiko, sexual eta/edo sexistak jasateko arriskuak, edo haien aurrean ingurune bat segurua ez dela hautemateak, mugatu edo baldintzatu egiten duelako espazioetara iristeko eta baliabideak eskuratzeko gaitasuna, eta ondorioz, baita autonomia pertsonala ere.
- la eraso guztiak gizonek egiten dituztelako, eta eraso sexual eta/edo sexista gehienetan emakumeak direlako biktima.
- Erasoeziko seguruak ez diren inguruneek (edo hala hautematen direnek) kalte handiagoa eragiten dietelako emakumei gizonei baino, bai zuzenean, bai zaintzaile bezala.

Zer gehiago dakigu?

- Egoera hau larriagoa da beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adina (haurrak, adineko pertsonak), sexu-orientazioa, arrazializazioa, gaitasun funtzionala eta abar.
- Segurtasun baxuko inguruneek, edo hala hautematen direnek, lan-karga handiagoa eragiten diete zaintzailei —emakumeak gehienbat—, eta beraz autonomia murrizten.
- Gauzez bakarrik irteten ez direla dioten pertsona gehienak emakumeak dira, bai eta eremu jakin batzuetan ibiltzea saihesteko estrategiak erabiltzen dituztenak ere.

- Espazio publikoan segurtasunik ezaren pertzepzioa besteak beste espazio horien ezaugarriek baldintzatzen dute, eragina handiagoa delarik ingurunea ezagutzen ez dutenengan.

Kontuan hartzekoak:

- Beldurraren produkzioan espazio publikoa erdigunean jartzen bada ere, eraso gehienak biktimaren senideek edo bere inguruko pertsonak eragiten dituzte, etxean bertan.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Ibilbide edo espazio nagusietan ezkutalekuak egotea edo ikuseremu mugatuak izatea.
- Argiztapen baxua edo desegokia oinezkoen ibilbideetan edo espazio publikoan.
- Erabilera edo jarduera ekonomiko gutxi egoteak, edo eta hauen aniztasuna baxua izateak, honek murriztu egiten baitu espazio publikoan dabilen edo dagoen pertsonen kopurua (egunean zehar, astean zehar...).
- Berezko zaintza baxua espazio publikoan, inguruko etxebizitza zein establezimenduetatik.
- Nahitaezko pasaguneak, batez ere gorago adierazitako faktoreetako baten edo gehiagoren eraginpean badaude.

Egoera larriagotzen duten beste faktore edo ingurune batzuk:

- Gaur, bakardadean ibiltzea, inguru zikinetan edo mantentze-lan gutxirekin... Zikinkeriarri edo bandalismoari dagokionez, proposatzen da ez hartzea fenomeno "neutro" gisa: gehienetan gizonak eragindakoak dira eta espazio publikoan uzten dituzten "genero arrasto" gisa interpretatzea proposatzen da.
- Alkoholaren kontsumoari lotutako guneak edo uneak, gizon gazteak zein helduak nagusi diren espazioak, etab.
- Ispiluen edo kamaren presentziak, zenbait testuingurutan, segurtasun-ezaren pertzepzioa areagotu dezake.

Babesa istripuen aurrean

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



BABESA ISTRIPUEN AURREAN

Herriguneetan istripu gehienak eta larrienak gizonezkoek eragiten dituzte. Hau esanda, istripuen aurrean nahikoa babestuta ez dauden lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, eragina nabarmenagoa delarik haur eta adinekoengan. Gainera, kontuan izan behar da nahikoa babestuta ez dauden lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez ISTRIPUEN AURREAN BABES handiagoa behar duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Istripuak izateko arriskuak, edo haien aurrean ingurune bat nahikoa babestua ez dagoela hautemateak, mugatu edo baldintzatu egiten duelako espazioetara iristeko eta baliabideak eskuratzeko gaitasuna, eta ondorioz, baita autonomia pertsonala ere.
- Gure herriguneetan ibilgailuek oinezkoak harrapatzen dituzten kasu ohikoenean istripuen eragilea gizon gazte edo heldu bat izan ohi delako, eta biktima, berriz, adineko emakumea.
- Istripuen aurrean nahikoa babestuta ez dauden inguruneek (edo hala hautematen direnek) kalte handiagoa eragiten dietelako emakumeei gizonei baino, bai zuzenean, bai zaintzaile bezala.

Zer gehiago dakigu?

- Egoera hau larriagoa da beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adina (haurrak, adineko pertsonak) edo gaitasun funtzionala.
- Ingurune babesgabeek -edo hala hautematen direnek- lan-karga handiagoa eragiten bait diete zaintzaileei, emakumeak gehienbat.
- Beldurrik zabalduena ibilgailu batek harrapatzea da, ezusteko abiaduragatik zein maniobregatik. Gainera, kontuan izan behar da beldurra nabarmenagoa dela gidatzen ez dutenen artean (emakume gehiago gizonezkoak baino, adineko asko, haur eta nerabe

guztiak...).

- Hainbat taldetako pertsonentzat (haurrak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak) zailagoa da erreakzionatzea edo eta trafikoa interpretatzea: besteak beste, abiaduraren arabera denborari neurria hartzea, maniobra bat egiten ari den ibilgailu baten hurrengo mugimenduari aurre hartzea, ibilgailu batek bidegurutzean hartuko duen norantza aurreikustea...
- Gainera, adineko pertsonak erorketei beldurra adierazten dute (besteak beste bizikletek, patineteek, baloiek edo eta txakurrek eraginda): heriotza ez-naturalen artean, erorketak dira 65 urtetik gorakoaren artean lehen arrazoia.
- Haurren portzentai altu batek txakurrei beldurra adierazten du (lotu gabeak, handiak, beltzak, dinamikoak...).
- Genero-ikuspegitik azpimarratu nahi da aurreko hiru puntuetako arriskuen eta beldurren gainean gizonak (mutiko, gazte zein helduek) duten eragina, espazio publikoan bere rola indartzeko faktore horien erabilera soziala egiten duten neurrian.
- Adinekoen artean, erorketek eta erortzeko beldurrak —prebalentzia eta intentsitate handiagoarekin emakumeen artean— zaurgarritasun-espiral bat eragiten dute askotan: ospitaletik pasa edo ez, erorketa batek konfidantzaren galera dakar, honek erorketa gehiago izateko beldurra, ondoren datoz jarduera fisikoaren eta sozialaren murrizketak, sokaren amaieran mendekotasuna eta gizarte-isolamendua daudelarik.

Trafikoaren arriskuaren inguruan, kontuan hartzekoak:

- Hiri bateko trafikoa ez da "berez" gertatzen: plangintza eta diseinu zehatz baten emaitza da, eta, beraz, baita haren arriskugarritasuna ere.
- Ibilgailuak gidatzean, jokabide ausartegiak edo oldarkorrenen atzean gizonetakoak daude: arazoa hobeto ulertzen da jarrera horiek maskulinitate hegemonikoarekin lotzen badira.
- Feminismoen irakaspenetako bat da hitzak ez direla neutroak. Adibidez, "trafiko arriskutsua" esamolde epelaren ordez beste batzu erabil litezke: "gidatze arriskutsua", "bide indarkeria"...¹

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

Oinezkoen lehentasuna eta segurtasuna bermatzea, trafikoa murriztea, abiadura moteltzea eta antzeko helburuak ez txertatzea edozein eskala eta esparrutako erabaki guzti guztietan:

- Eskala handian: eremu bateko eta bere inguruko mugikortasun-sarearen plangintzan, erregulazioan, banaketa modalean, lehentasunen ezarpenean, aparkalekuen eskaintzan eta kokapenean, etab.
- Eskala txikian: bidegurutzeen diseinuan, kaleen zeharkako iragazkortasunean, oinezko pasabideen inguruan (kopurua, kokapena eta testuingurua), etab.

Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten guneean (plataforma bakarreko kaleak, galtzadatik doazen bidegorriak...):

- Ez hartzea kontuan gune hauen eragina ez dela berdina pertsona guztientzat: zenbait diseinuren aurrean, talde zaurgarriek (haurrak, adinekoak edo eta desgaitasun bat dutenak) eta horien zaintzaileek (emakumeak gehienbat) nahiago izango dituzte ibilbide banandu eta babestuak.

¹ "Violencia vial" esamoldea Barne Ministerioak erabili izan du (adib. [bere webgunean](#), 2022), eta Barne ministroak berak esamolde horixe erabili behar dela adierazi zuen ([DGT-ko webgunean](#), 2020).

- Goikoa aplikatuz, espazioen diseinuan edo araudian ez hartzea kontuan salgaien trafikoaren eta zamalanekin lotutako maniobren arriskuak, batez ere merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen dentsitate altuko eremuetako.

Egoera larriagotzen duten beste faktore edo ingurune batzuk:

- Hiri-mugikortasuen esparruan, osasunaren edo eta klima-aldaketaren inguruko ebidentzia zientifiko sendoa ez jartzea erdigunean. Honek, besteak beste, hirigintzako profesionalek zein arduradun publiko askok kotxearen erabilera murrizteko neurriak ezartzea eragozten du.

Irisingarritasuna

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



IRISGARRITASUNA

Irisingarriak ez diren lekuek pertsonen autonomia mugatzen dute, ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonena (EAEn gehiengoak emakumeek osatzen dute), beste askorengan ere eragiten baitute (adinekoak, zamak daramatzaten pertsonak edo min hartuta daudenak...). Gainera, kontuan izan behar da irisingarriak ez diren lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku garrantzitsu bat, zure ustez IRISGARRIAGOA izan behar duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Ingurune bat irisingarria ez izateak mugatu edo baldintzatu egiten duelako espazioetara iristeko eta baliabideak eskuratzeko gaitasuna, eta ondorioz, baita autonomia pertsonala ere.
- Gure gizartean, gutxi gorabehera desgaitasuna duten hiru pertsonatik bi emakumeak direlako, besteak beste desgaitasunak zahartzaroarekin duen loturagatik.
- Irisingarritasun baxuko inguruneek kalte handiagoa eragiten dietelako emakumeei gizonei baino, bai zuzenean, bai zaintzaile bezala.

Zer gehiago dakigu?

- Gaitasun funtzionalaren galera oso lotuta dago zahartze-prozesuarekin, eta horrek azaltzen du desgaitasuna askoz ere nagusiagoa izatea emakumeen artean gizonen artean baino.
- Erorketak dira 65 urtekoen artean heriotz ez-naturalen lehen arrazoia.
- Hirigintzan eta arkitekturan kontuan hartzeko desgaitasun nagusiak hauek lirateke: fisikoak (mugikortasun murriztua, esfortzu-gaitasun txikia...), sentsorialak (itsua izatea, ikusmen murriztua...) eta kognitiboak (ingurunean orientatzeko edo hura interpretatzeko gaitasuna).

- Desgaitasuna, generoa bezala, eraikuntza soziala da. Alegia, ingurune gaitzaileek² gutxitu egiten dute desgaitutzat hartuko genukeen pertsonen kopurua.

Desgaitasunari aplikatutako genero-ikuspegiak bi ertz ditu, oso garrantzitsuak:

- Irisgarritasun baxuko inguruneek zaintza-lanen gainkarga sortzen dute zaintzaileengan, emakumeak gehiago batean.
- Irisgarritasunari dagokionez "autonomia pertsonala" izanik helburu nagusia, normala da araudietan erreferentziazko subjektua norbanakoa izatea, eta beraz baita bere dimentsioak ere. Genero-ikuspegitik, ordea, salatzen da arauak ez dutela aintzat hartzen "lagundutako autonomia" -adibidez, espaloian izan edo komunean izan, desgaitasuna duen pertsona bat zaintzaile baten laguntzari esker moldatzen denean-, eta beraz eskatzen da hain ohikoa den subjektu hori ere -bi gorputzek osatua-, kontuan hartzea.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Batez ere kota-jauziak, koskak, maldak eta zoladuraren ezaugarriak.
- Oztopo ez-iraunkorrek (ibilgailuak, terrazak, etab.) espazio publikoa eta oinezkoentzako ibilbideak okupatzea.
- Ingurua hautematen edo interpretatzen (argiak, seinaleak), edo espazio publikoan atsedean hartzen (eserlekuak, iturriak, komunak) laguntzen duten hiri-altzaririk ez izatea.
- Ondarearen kategoria duten espazio publikoak eta eraikinak, orokorrean egokitzeko zailtasun gehiago izaten baitira.

Egoera larriagotzen duten beste faktore edo ingurune batzuk:

- Gizarte kapazitista batean bizi garenaren kontzientzia baxua, besteak beste hirigintzako eta arkitekturako profesionalek eta arduradun publiko askok irisgarritasunaren arloko araudia malgutasunez interpretatzea eragiten duena.

² "Entornos capacitantes", gaztelera.

Mugikortasuna

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



MUGIKORTASUNA

Bere kokapen geografikoa dela eta, leku zein ekipamenduetara iristeko ahalegin handia egin beharrak pertsonen autonomia mugatzen du. Eragina larriagoa da kotxerik ez edo gidatzen ez duten pertsonengan (haur guztiak, desgaitasun bat duten gehienak, adineko asko, errenta baxua dutenak...), eta nabarmenagoa da emakumeengan gizonengan baino. Gainera, kontuan izan behar da iristeko ahalegin handia edo denbora asko eskatzen duten lekuek zaintzaileen lana areagotzen dutela, emakumeak gehienak.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu garrantzitsu bat, zure ustez **KOTXERIK EZ DUTENEN EDO GIDATZEN EZ DUTENEN** bizimodua zailtzen duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Gehiengoaren premiekin, gaitasunekin edo mugikortasun-ohiturekin bat ez datozen hiri-eredu, lurralde-antolamendu edo mugikortasun-sistemek mugatu edo baldintzatu egiten dutelako espazioetara iristeko eta baliabideak eskuratzeko gaitasuna, eta ondorioz, baita autonomia pertsonala ere.
- Gure gizartean, ibilgailu pribatuaren erabiltzaileen gehiengoa gizonetako gazte eta helduek osatzen dutelako, eta aldiz, garraio publikoaren erabiltzaileen gehiengoa emakumeek osatzen dutelako.
- Ibilgailu pribatuaren erabileran oinarritutako hiri-ereduak, lurralde-antolamenduak eta garraio-sistemek kalte handiagoa eragiten dietelako emakumeei gizonei baino, bai zuzenean, bai zaintzaile bezala.

Zer gehiago dakigu?

- Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizontzat baino eta egoera hori larriagoa egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adinak (haurrak, adineko pertsonak) edo gaitasun funtzionalak, bai eta ibilgailurik ez duten edo gidatzen ez duten pertsonen artean ere.
- Lanaren ondoriozko joan-etorriak (produktiboa, ordaindua), gehienbat motordun ibilgailu

pribatuan egiten direnak eta gehiago gizonak emakumeek baino, dira, hain zuzen, mugikortasunaren plangintzan eta diseinuan arreta gehien jartzen zaienak.

- Zaintzaren mugikortasunak (ondotik joatea, laguntza), batez ere oinez eta emakumeek egindakoak, ez du beste desplazamendu batzuen arreta bera jasotzen.
- Gizonezko gidarien errolda emakumezko gidariena baino askoz handiagoa da.
- Hiri bateko trafikoa ez da gertatzen, diseinatu egiten da.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Eremu bateko eta inguruko mugikortasun-sarea eta -sistemak: plangintza, kudeaketa, banaketa modala, lehentasunak ezartzea...
- Kaleen banaketa espaziala, diseinua edo ekipamendua.
- Motordun ibilgailu pribatuen trafikoa eragiten duten erabilerak egotea (aparkalekuak, adibidez).
- Ibilgailu motordun handien trafikoa eragiten duten erabileren dentsitatea (ostalaritza- edo merkataritza-establezimenduak).

Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

- Mugikortasun-inkesta askok ez dituzte sexuaren arabera bereizten emaitzak, ikusezin bihurtzen dute "zaintzaren mugikortasuna" edo ikusezin bihurtzen dituzte oinez edo bizikletaz egiten diren desplazamenduak.
- Hirigintzako estandarrak.³ Eremu baten garapenaren kalitatea bermatze aldera, espazio publikoan lorategi-eremuak, kirol-eremuak eta erabilera eta/edo zerbitzu publikorako gainerako espazioen zuzkidura arautzen dute estandar hauek. Mugikortasun jasangarriaren inguruan azken hamarkadatan bildu den ebidentziaren kontra, logika berbera aplikatzen dute aparkalekuen kopuruak ezartzen dituzten estandarrek, maximoen ordez minimoak ezarriz besteak beste.

³ 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/07/1203380e.pdf>

Ongizatea eta garapen pertsonala

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



ONGIZATE ETA GARAPEN PERTSONALA

Oso garrantzitsua da gure egunerokoan on egingo diguten inguruneak eskura izatea, are gehiago baliabide material gutxien dituzten pertsonen kasuan. Ildo horretan, badakigu ongizate indibidualerako (osasun fisikoa eta mentala) zein garapen pertsonalerako (kultura, kirola...) inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, ONGIZATE INDIBIDUALA irabazten laguntzen dizuna.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Ezaugarri biologikoen edo eta bizi-ohituren gainetik, determinatzaile sozialek baldintzatzen dutelako pertsonen eta populazioen osasuna eta ongizatea, horren inguruko ebidentzia zientifikoa sendoa delarik.
- Determinatzaile sozial horien artean, ingurune fisikoa delako nagusienetako bat ("ez begiratu kode genetikoari, kode postalari baizik").
- Ongizaterako eta garapenerako ingurune (azpiegitura, espazio, ekipamendu, zerbitzu...) publiko egokien premiak ez direlako berberak populazio-talde guztientzat: hala, baliabide gutxiago dituztenek bereziki behar dute ingurune horiek bere premia, gaitasun eta ohituretara egokitzea eta oso eskura izatea.
- Ongizaterako eta garapenerako baliabideetara irismena ez delako maila berean irisgarria populazio guztiarentzat.

Zer gehiago dakigu?

- Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino, eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.
- Emakumeen osasuna gizonena baino okerragoa da, eta azalpenik onena ez da sexuan

oinarritzen, generoari lotutako desoreka eta desberdinkeriatan baizik.

- Generoak ere laguntzen du gizonen zenbait ondoez eta osasunari lotutako hainbat gertaera azaltzen.
- Osasuna (fisikoa, mentala eta soziala) pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin edo zahartzen diren zirkunstantziak baldintzatzen dute, eta osasunaren determinatzaile sozial horiek azaltzen dute biztanleria-talde batzuek besteek baino osasun kaskarragoa izatea.
- Osasun-arloko desberdikeriak (bidegabeak, sistematikoak eta saihesgarriak diren desberdintasunak) ez dira faktore biologikoen edo pertsonen hautu indibidualen ondorio; aitzitik, pertsonengan gurutzatzen diren eta politika publiko eraginkorren bidez alda daitezkeen faktoreen arabera dira: generoari beste batzuk gehitzen zaizkio, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.
- Kalitatezko espazio berdeak onuragarriak dira osasun mentalerako: frogatuta dago estresa murrizten dutela, baita kontaktua ikusizkoa baino ez denean ere (etxetik parke bat edo ibaia ikustea, adibidez).

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Agente kutsatzaile edo kaltegarrien eraginpean egotea (adibidez, zarata), eta eragin hori denbora luzez gertatzea.
- Oinezko edo bizikletazko joan-etorriak lehenestera bideratutako jarduerak, bai eta autoaren erabilera eragoztera bideratutakoak ere.
- Osasuna eta ongizatea sustatzen duten kalitatezko eguneroko baliabideak benetan eskuratzea: erosketa eta elikadura osasungarria errazten duten inguruneak, jolaserako edo jarduera fisikorako baliabideak, ingurune naturalarekiko konexioa eta espazio berde edo urdinak, garapen pertsonalerako ekipamenduak...

Topaketa eta elkarbizitza

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzazko diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA

Gizarte baten ongizaterako eta kohesiorako beharrezkoak dira topagune eta jarduera inklusiboak, are gehiago bakardade egoeran daudentzat edo sare-sozial ahulak zein urriak dituztenentzat. Badakigu topaketarako eta elkarbizitzarako inguruneek pertsonen beharrian zein ohiturekin bat egin behar dutela. Eta badakigu baita ere ingurune asko modu desberdinean erabiltzen eta baloratzen dituztela gizarteko talde desberdinek (emakumeek eta gizonek, adibidez).

Aipatu mesedez Elizaldeko leku edo ekipamendu bat, zure ustez TOPAKETA ETA ELKARBIZITZA sustatzen dituen.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

Izan ere, komunitateen premiekin, ohiturekin eta pertsonen behar sozialekin bat ez datozen inguruneek eragina dute komunitatearen ongizatean eta garapenean. Badakigu elkarbizitza- eta komunitate-sareek ongizaterako baliabideak eskuratzeko gabeziak konpentsatzen laguntzen dutela: horregatik dira garrantzitsuagoak emakumeentzat gizonentzat baino, eta are garrantzitsuagoak beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeentzat, hala nola, adina, maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazaliziaiozia edo sexu-orientazioa.

Zer gehiago dakigu?

- Giza-harreman eta sare-sozial egokiak zuzenean daude lotuta osasun fisikoarekin eta mentalarekin, harremana positiboa delarik.
- Maskulinitate hegemonikoak indibidualtasunari ematen dio balio gehiago komunitateari baino, eta honek gizonen zenbait ondoez eta gertaera azaltzen laguntzen du.
- Ongizate komunitarioa (fisikoa, mentala eta soziala) pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin edo zahartzen diren zirkunstantziek baldintzatzen dute, eta ongizate komunitarioaren determinatzaile sozial horiek azaltzen dute biztanleria-talde batzuek besteek baino osasun okerragoa izatea.

- Osasun-arloko desberdintasunak (bidegabeak, sistematikoak eta saihesgarriak diren desberdintasunak) ez dira faktore biologikoen edo pertsonen hautu indibidualen ondorio; aitzitik, pertsonengan gurutzatzen diren eta politika publiko eraginkorren bidez alda daitezkeen faktoreen arabera dira: generoari beste batzuk gehitzen zaizkio, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.
- Sare sozial askotarikoak eta egokiak izatea kardio-babeslea da, heriotz-arriskua %50ean murrizteraino⁴.
- Isolamendu sozialak heriotza goiztiarra izateko arriskua areagotu dezake egunean 15 zigarro erretzeak bezainbeste⁵.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Hirien trinkotasunak eta erabileren hurbiltasun zein aniztasunak.
- Espazio publikoen kalitateak, topagunerako baliabide diren heinean.
- Ekipamendu publikoen, eta hauetan ematen den zerbitzuen, kalitateak, garapen komunitariorako tresna gisa baliatzen direnean.
- Oinezko edo bizikletazko joan-etorriak lehenestera bideratutako garraio-sistemak.

⁴ Social relationships and mortality risk: a meta-analytic review (Julianne Holt-Lunstad, 2010) <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/20668659/>

⁵ Bakardadeak eta isolamendu sozialak heriotza goiztiarra izateko arriskua %26 eta %29 handitzen dute hurrenez hurren. Orokorrean, gizarte konexiorik ez izateak heriotza goiztiarra izateko arriskua areagotu dezake egunean 15 zigarro erretzeak bezainbeste. Gainera, gizarte-konexio eskasa edo nahikoa eza gaixotasunak izateko arriskua areagotzearekin lotzen da, besteak beste, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua % 29 handitzea eta trazua izateko arriskua % 32 handitzea ("Our Epidemic of Loneliness and Isolation", 2023) <https://www.hhs.gov/sites/default/files/surgeon-general-social-connection-advisory.pdf>

Erreprodukzio- eta zainketa-lanak

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzako diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



ERREPRODUKZIO- ETA ZAINZA-LANAK

Oraindik nahikoa baloratzen ez badira ere, zaintza-lanak behar-beharrezkoak ditugu: etxean nahiz kalean, zaintza-lanean diharduten pertsonen inguratuta gaude. Zainketa horien hartzaileak anitzak dira (haurrak, adinekoak, desgaitasunen bat dutenak...), baita zaintzaileak ere, baina badakigu oraindik emakumeek (ordainpean edo ezeren truke, gustora zein gogoz kontra) askoz ere zaintza-lan gehiago egiten dutela gizonetzkoek baino.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku bat, zure ustez HAURREN EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINZA errazten duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

Erreprodukzio-lanaz arduratzeak, lan hori errazten duten baliabideetarako eta kontuan hartzen duten inguruneetarako sarbide eraginkorrik ez izateaz gain, mugatu edo baldintzatu egiten duelako pertsonen denbora librearen errenta, eta, beraz, norberaren autonomia eta ongizatea. Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola klase soziala (emakumeetan).

Zer gehiago dakigu?

- Edozein adinetako emakumeek gizonen baino bi aldiz denbora gehiago ematen dute erreprodukzio-lanetan.
- Emakumeen artean gaixotasun eta ondoreen prebalentzia handiagoa ez dago soilik erreprodukzio-lanaren gaitasunarekin lotuta, baita lan horren banaketan dagoen desberdintasunarekin ere.
- Emakumeen dedikazioak beherakada nabarmena erakusten du gizarte-klase altuenean, eta gizonena, berriz, gizarte-klasearekiko independentea da.
- Agenda politiko eta sozialean gero eta presentzia handiagoa duen arren,

erreproduzio-lanak gutxietsia eta ikusezina izaten jarraitzen du, baita hiri-plangintzan ere.

- Eguneroko inguruneak erreproduzio-lanleku dira, ondoez gutxiago eragiten dituzte lan horietarako funtzionalak direnean, eta sare sozialak eragiteko gaitasuna daukate lanak partekatzea errazten edo eta erantzunkidetasuna sustatzen dutenean..

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Bizitegi-ehuna merkataritza-ehunarekin edo ekipamendu eta espazio publikoekin hornitzea, aniztasuna, hurbiltasuna eta nahasketa.
- Ekipamenduen hornidura (bereziki haurrentzako edo adinekoentzako erabilerak edo espazioak barne hartzen dituztenak), baita horien diseinua edo kudeaketa ere.
- Espazio publikoaren kalitatea eta ekipamendua: espazio estaliak, hiri-altzari eta argiteria egokiak, komunak, etab.
- Ingurune seguruak eta babestuak egotea; horrek adingabeen eta adinekoen autonomia sustatzen du, eta, horrela, zaintza-karga arintzen laguntzen du.

Laburbilduz, hiri- eta bizitegi-ingurunea erabakigarria da eta erreproduzio-lanerako baliabidea da: ingurune horretan hobekuntzak eragin positiboa du biztanleen ongizatean, bai zaintzak behar dituztenengan, bai zaintzaileengan (emakumeak, gehienbat). Eragin hori are handiagoa izango da inguruen plangintzan eta diseinuan bereziki kontuan hartu badira erreproduzio-lana errazteko edo arintzeko beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera gutxiago dituzten zaintzaileen beharrak eta lehentasunak.

Presentzia eta adierazgarritasuna

Irizpide honen inguruan herritarrei luzatutako galdera, Elizalde auzoko partaidetzako diagnostikoa egiteko galdetegi digitalean



PRESENTZIA ETA ADIERAZGARRITASUNA

Gure herrietako inguruneek (kaleak, plazak, ekipamenduak, parkeak...), bere kokapenaren, neurriaren, diseinuaren edo egindako inbertsioaren bitartez adierazten dute ze garrantzi eman zaion zenbait gairi, edo zein neurritan egokitu diren beharrian batzutura. Hala, gure kaleetan askotan hauteman dezakegu zenbait eskaera edo gizarte-talde erdigunean jartzen direla, eta beste batzu albo batetara geratzen direla.

Aipatu mesedez Elizaldeko leku bat, zure ustez EMAKUMEAK ETA BERE PRESENTZIA aitortzen, indartzen edo sustatzen duena.

Zergatik proposatu da irizpide hau?

- Hiri bera, hasi bere antolamendu orokorretik eta espazio publiko txikietaraino, eraikuntza soziala baita: alegia, bai hirigintza arloko prozesuetan zein emaitzetan islatzen baitira garai bakoitzean boterea dutenek baloratzen dituzten esparruak eta gaiak.
- Hiri-plangintzaren prozesuei eta emaitzei dagokionez, emakumeen presentzia eta parte-hartzea ez delako gizonena adinakoa. Bide horretatik, "zainketa-zamarik eta desgaitasunik gabeko gizon txuri, hetero eta burgesarentzat" garrantzitsuak diren hainbat gai eta esparruren presentzia baxua izan ohi da, bai prozesuetan, bai emaitzetan: aniztasuna, erreprodukzio lana, desgaitasuna, garapen komunitarioa...
- Beste alor batzuetan gertatzen den bezala, arkitektura eta hirigintza ez dira neutroak eta gizarte bakoitzaren balioak irudikatzen dituzte. Dokumentu honi dagokionez, egoera horren arabera, hiri-plangintzaren prozesu eta emaitzetan genero-diskriminazioak islatzen dira, baita elkarreraginean dauden gainerako diskriminazioak ere (aporofobia, arrazismoa, kapazitismoa, adinismoa...).

Zer gehiago dakigu?

- Garrantzitsuak izan arren, esparru publikoko erabaki-eremuetan (hirigintzan besteak beste) boterea dutenentzat balio gutxikoak diren gaiak ez dira bere neurrian identifikatzen, ez diagnostikatzen ez eta arazo gisa eraikitzen, eta beraz garrantzi gutxi hartzen dute agenda

publikoan. Horien artean daude feminismoetatik aldarrikatzen diren hainbat gai.


- Hirigintzako plangintzan eta proiektuetan hainbat gairen presentzia "modu naturalean" bermatua dagoen bitartean (trafikoa edo aparkalekuak, adibidez), genero-ikuspegitik esanguratsuak diren gaiak txertatzeko jarduketak bideratzeko arau bat sortu behar izan da, eraginkortasuna oraingoz erdipurdikoa delarik.
- Hirigintzari dagokion araudi guztia kontuan hartuz gero, alderdi sozialak bermatzeko edo txertatzeko berariaz ezarria dagoenak portzentai txikia hartzen du.
- Hala, hiri-plangintzako tresnek —beste hainbat politika eta ekintza publikoek bezalaxe— nekez diagnostikatzen eta artatzen dituzte espezifikoki desberdinkeria horiek.
- Era berean, desberdinkeria-arrakalak murrizten lagundu beharrean, arrakalak betiketzea edo zabaltzea eragiten duten neurriak hautematen dira maiz.
- Azalpenetako bat da, gizonen esperientzia unibertsaltzat hartzen dela, baita itxuraz neutroak diren metodologia eta erabakietan ere. Aldiz, emakumeena erreferentzia horrekiko desbideraketa gisa hartzen da askotan, zenbaitetan gutxiengo sozialen trataera bera ematen zaiolarik. Egoera are larriagoa da arazoa beste desberdinkeria-ardatzak kontuan hartuz aztertzen bada.
- Horrek guztiak laguntzen du emakumeek, haien presentzia erreal zein sinbolikoak, oroimenak, jarduerak, premiek edo eskaera espezifikoek arreta gutxiago izatea.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Espazio publikoaren banaketa bidegabea, sarritan antzeman daitekeena motordun mugikortasunak aldeko tratua jaso duen espazio libreetan, beste jarduera batzuen aldean.
- Erreproduzio-lana (etxeko lanak edo zaintza-lanak) modu egokian artatzen ez duten inguruneak (espazio publikoak, ekipamenduak, baita etxebizitzak ere).
- Beren plangintzan eta diseinuan erreproduzio-lana errazteko edo inklusioa bultzatzeko helburua txertatu ez duten inguruneak.
- Irudikapen sinbolikoak (kale-izen-degiak edo hiri-paisaiak, adibidez).

3

Sustatzailearen lehen alternatibak




ELI-6 eremua, HAPOk Kalifikazio Xehatuan, Hiri Eredua adierazten duen planoan. Egitura honen gainean sustatzaileak Udalari aurkeztu dizkion bi alternatibak izan dira genero-ikuspegia txertatzeko proposamenen jarduketa-esparrua. Era honetara, maila orokor batean gera zitezkeen irizpideak, modu zehatzagoan aplikatzeko aukera izan dugu proposamen edo gomendio gisa. Hurrengo bi orrietan jaso dira alternatiba horiek.

1. proposamena




Txosten honetan "lehenengo alternatiba" deitu duguna (azpiko irudian, sustatzailearen planoan).



2. proposamena



Txosten honetan "bigarren alternatiba" deitu duguna (azpiko irudian, sustatzailearen planoan).



4

Genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak

Kontuan izan behar da prozesu honek Plan Partzial baten lehen urratsekin egin duela bat. Honek baditu bere abantailak eta zailtasunak, prozesu honen helburu eta eraginkortasunari dagokionez. Batetik, erabaki garrantzitsuei aurrea hartu zaio, eta beraz, ekarpenak proaktiboagoak dira (proposamenak), erreaktiboak baino (neurri zuzentzaileak). Baina bestetik, garapen-maila orokorragoa denez, genero-ikuspegiaren irizpideak aplikatzeko esparrua murriztagoa izan da, espazioen eta eraikinen nolakotasunaren inguruko informazio asko ez baita oraindik zehaztu.

Edozein kasutan, lau esparrutan antolatu dira prozesuaren emaitza diren proposamen eta gomendioak:

Etxebizitza

- Sustapen- eta jabetza-eredu desberdinen nahasketa egoki ikusi da.
- Etxebizitza-eraikinen eta espazio publikoaren arteko harremana birplanteatu.
- Mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako gela egokiak aurreikusi, beheko solairuan.
- Atarietarako sarbideak bistan daudela bermatu, ikus-eremu zabalekin.
- Garajeetarako sarbideak birplanteatu, kotxeek oinezkoen eremuetan eragiten dituzten kalteak murrizteko.

Kaleak eta mugikortasuna

- Topografia berriaren ezarpenean oinezkoen ibilbide nagusien irisgarritasuna lehenetsi.
- Sarearen diseinua aldatu, oinezko eta bizikletazko joan-etorriak lehenesteko.
- Sarearen diseinua aldatu, trafikoa eta bere abiadura murrizteko.
- Aparkalekuen eskaintza eta kokapena aldatu, trafikoa murrizteko eta espazio publikoa hobetzeko.
- Bidegorriaren trazadura Mugikortasun Planera egokitu.
- Eraikinetako erabilerak eta diseinu orokorra birplanteatu, oinezko joan-etorriak seguruagoak eta atseginagoak izan daitezen.

Espazio publikoak

- Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.
- Etxebizitzen inguruan kalitatezko espazio publiko seguru eta atseginak aurreikusi.
- Parkeez gain, espazio publikoetan zoru naturalak eta zuhaitzak aurreikusi, ugari eta askotarikoak.
- Joan-etorrietara bideratutako espazio publikoen kalitatea kontuan izan.

Ekipamendu publikoak eta lokalak

- Ekipamendu publikoen kokapena egokia da, kaskotik gertu eta Elorrondo kalearen ondoan.
- Erabilera tertziarioa ekipamendu publikoen ondoan jarri, jardueren ezarpena eta hiri-bizitasuna sustatzeko.
- Erabilera tertziarioan azalera handiko jarduerak ezartzea saihestu.
- Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.
- Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen inguruko ibilbideetako eta espazioetako irisgarritasuna bermatu.

Etxebizitza

Lehenengo parte-hartze saioan "Etxebizitza" lantaldeak egindako proposamenak



Zer EZ egin?

- BS+4 solairu baino gehiagoko etxeak.
- Balkoirik gabeko etxebizitzak.
- Kanpotarrentzako etxebizitzak.

Zer egin?

- Askotariko jabetza-motak: alokairu soziala, libreak, babestutako jabetza (babes ofizialekoak, tasatuak), dotazionalak.
- Epea agortu edo diru-sarrerak gainditu dituztenentzako, alokairu sozialeko edo babes ofizialeko etxebizitzetan bizi direnentzako epe luzagarriak aurreikusi.
- Logela bakarrekoak ere bai (adib. gazteentzako lehenengo etxebizitza).
- Etxe jasagarriak.
- Etxebizitza-eraikinetan espazio komun egokiak:
 - Sarbide peatonalak, ez aparkatzeko gunea atari aurrean.
 - Itzalguneak eta aterpeak.
 - Bizikleta-gela.
- Auzo mailako espazio komun egokiak:
 - Auzo-lokal bat, konposta egiteko espazioa...
- Fatxada irekiak: etxebizitza argitsuak, kale seguruagoak.
- Oinezko sarbide egokiak, atarien ondoan "zamalanelarako" espazioak aurreikusiz.
- Bidegorriekin lotura egokiak.
- Eremu berriak kotxe gehiago ekarriko du Elizaldera, eta horrek joan-etorri eta korapilo berriei lotutako arazoak kudeatzea eskatuko du.


Lanketa teknikoan zehar sortutako irizpideak zein parte-hartze prozesuan jaso diren ekarpenak uztartuz, hainbat proposamen osatu dira esparru honetan genero-ikuspegia txertatzeko. Hasteko, laburpen-terekin batean adierazi da zein neurritan aurreikusten den eragin dezaketela proposamen horiek genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean (ikus eraginaren inguruko justifikazioa 2_Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak atalean).

Etxebizitza Proposamenen eragina genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean	Segurtasuna — Babesa — Irisgarritasuna Mugikortasuna — Ongizatea — Elkarbizitza Zainketa-lanak — Presentzia							
	Seg	Bab	Iri	Mug	Ong	Elk	Zai	Pre
Sustapen- eta jabetza-eredu desberdinen nahasketa egoki ikusi da.	●	●	●	●	●	●	●	●
Etxebizitza-erakinen eta espazio publikoaren arteko harremana birplanteatu.	●	●	●	●	●	●	●	●
Mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako gela egokiak aurreikusi, beheko solairuan.	●	●	●	●	●	●	●	●
Atarietarako sarbideak bistan daudela bermatu, ikus-eremu zabalekin.	●	●	●	●	●	●	●	●
Garajeetarako sarbideak birplanteatu, kotxeek oinezkoen eremuetan eragiten dituzten kalteak murrizteko.	●	●	●	●	●	●	●	●

Sustapen- eta jabetza-eredu desberdinen banaketa egoki ikusi da.

ELI-6 eremuan 200 etxebizitza inguru garatuko dira (201 lehenengo alternatiban, 194 bigarreanean):

- Babes Ofizialekoak: 49—48 alokairuan (≈%25) eta 60—56 jabetzan (≈%30).
- Tasatuak: 40 (≈%20).
- Libreak: 52—50 (≈%25).
- Kasko ondoan egingo den garapen batean **lautik hiru etxebizitza sustapen edo babes publikoaren bitartez egitea, eta gainera horietatik heren bat alokairukoak izatea, genero-ikuspegitik positiboa da:** etxebizitzara irismena errazteaz gain, gizarte-nahasketa eta kohesiorako giltzarria da.




Sustapen- eta jabetza-eredu desberdinen banaketa espazialari dagokionez, orokorrean iritzi hobeak jaso ditu lehenengo alternatibak (goiko irudian). Izan ere, kaskotik eta ekipamendu publikoetatik hurbilen dauden etxebizitzak babes ofizialekoak (alokairukoak) dira, eta beraiekin batera dator, gainera, azalera tertziarioa. Urrunago daude babes ofizialekoak (jabetzan), eta harago, tasatuak zein libreak.




Etxebizitza-erakinen eta espazio publikoaren arteko harremana birplanteatu.

"Kalea" sortzeko osagai asko behar dira: horien artean daude fatxaden arteko distantzia edo eta beheko solairuek oinezko ibilbideekin zein espazio publiko nagusiekin sortzen dituzten harremanak. Alderdi bati zein besteari erreparatuta, esan daiteke alternatiba batean zein bestean badaudela harreman baxuko eraikin edo tipologiak.


- Elorrondotik Sibeluts aldera alternatiba batean zein bestean ageri den kalea zabala da, zabalegia beharbada: lehenengo alternatiban 33m inguruko tartea dago fatxaden artean, 42m-takoa bigarrenean. Erreferentzia gisa, Done Eztebe plazak 70m inguruko luzera dauka (Xabaletik Fermiñenera), eta gunerik zabalenean ez ditu 25 metroak gainditzen




Elorrondotik Sibeluts aldera doan kalea erdian hartuta, bi alternatiba desberdinen ebaketak jaso dira irudietan.



- Bestalde, bada dentsitate baxu-ertaineko etxebizitza-garapenetan ohikoa bilakatu den tipologia bat, beheko solairuan etxebizitzak jartzen dituena, espaloia baino zertxobait gorago normalean. Beheko solairuko etxebizitza hauen salmenta erakargarri egiteko, terraza zabalak ematen zaizkie etxebizitza horiei. Baina honek eraikinaren eta espazio publikoaren arteko harremana kaltetzen du, ondorio negatiboak eraginez segurtasunaren, ongizatearen edo eta zainketen gainean. Segurtasunaren inguruan, ikus aurrerago Atarietarako sarbideak bistan izango direla bermatzea, ikus-eremu zabalekin atala.
- Orokorrean, espazio publikoaren eta eraikinen artean trantsizio-espazioak egokitu izan dira beti, arkitektura xumeenetatik hasi eta jauregietara. Etxebizitza-eraikinen kasuan, gaur egun ohikoenak dira ataripeak⁶: jabari pribatua izanik, erabilera publikoa duten espazio estaliak. Hizpide dugun tipologian, antzeko zerbait proposatzen da: eraikinaren luzera osoan edo zati batzutan fatxadaren lerroakadura atzera eramatea metro batzuz, "trantsizio-zerrendak" deitu ditugunak osatuz. Zerrenda horien erabilera ez luke zertan publikoa izan, eraikineko erabilera komunitarioetarako erabiltzea ere badelako publikoaren eta pribatuaren arteko trantsizioa egiteko modu egoki bat. Baina kasu horietan, espazioen arteko banaketa sotilak aurreikusi beharko lirateke, hesirik gabeak besteak beste.




Terrazak atzeratzeko eta atari bakoitzean bizikleta-biltegia txertatzeko proposamenen aplikazioaren bi adibide, lehenengo alternatibaren gainean biak: goikoan, terrazak ez dira osorik atzeratu fatxadaren lerroakadurara, bai ordea behekoan. Bietan adierazi da "trantsizio-zerrenda" deitua (bizikleta-biltegiari buruz, ikus Mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako gela egokiak aurreikusi, beheko solairuan atala, jarraian).



⁶ "Portxeak".

- Kanpoan bakarrik ez, eraikin barruko espazio batzu trantsizio-eremu gisa ere uler daitezke: adibidez, ataria edo bizikletak gordetzeko gela kanpo-espazioarekin harreman egokian jartzen badira, espazio publikoaren eta pribatuaren arteko harremana hobetzen da. Era horretara, segurtasuna hobetzen da, zainketak errazten bai eta elkarbizitza sustatzen ere.



Eraikinetako beheko solairuko espazio batzu trantsizio-eremu gisa. Adibidea lehenengo alternatibako ebaketaren gainean egin da: beheko solairuetan atari bat (ezkerrean) eta bizikleta-gela bat (eskuinean) adierazi dira.

- Etxebizitza kolektiboko eraikin-tipologia honetaz gain, alternatiba batean zein bestean bada beste bat, beheko solairuetan erabilera tertziarioak dituena. Kasu honetan, irizpidearen aplikazio zehatza litzateke ataripeak aurreikustea. Orokorrean, gomendatzen da bi lerrokadura lehenestea ataripeak jartzeko: espazio publiko nagusienekin harremana dutenak batetik, eta eguteraan daudenak bestetik.

Mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako gela egokiak aurreikusi, beheko solairuan.

Bizigarritasun Dekretuak⁷ ezartzen duenez, mugikortasun pertsonalerako ibilgailuak gordetzeko lokalak jarri beharko dira etxebizitza eraikinetan:

I. ERANSKINA >> ETXEBIZITZEN ETA ZUZKIDURA-BIZITOKIEN GUTXIENEO BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK >> I-A: Eraikina >> I-A.4: Hornidura-baldintzak.

Bizikletak, haurtxoen aulkiak eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako laguntza-produktuak gordetzeko lokal bat. Hirigintza-estandar espezifikoak betetzeko adina azalera gordeko da, eta, halakorik ezean, aukera egon beharko da bertan gordetzeko etxebizitza-unitate bakoitzeko gutxienez 1,5 bizikleta, 10 etxebizitza-unitateko haurtxo-aulki bat eta 10 etxebizitza-unitateko mugikortasun murriztua duten pertsonentzako laguntza-produktu bat.

Ataritik sartuko da lokal horretara, eta kanpotik sarbide zuzena eta independentea izan dezake, baldin eta lokala atariaren ondoan badago eta barrutik atarira sartzeko aukera ematen badu. Lokala sestra azpiko solairuetan kokatu ahal izango da, baldin eta ataritik igogailuaren bidez zuzenean komunikatuta badago.

Ur-hartunea eta hustubidea izan beharko ditu lokalak, eta zoru, sabai eta horma guztiek estaldura akabatua izango dute.

Lokalaren kokapenari dagokionez, proposatzen da:

- Lokala beheko solairuan kokatzea, ataritik zein kanpoaldetik sarbide zuzenak jarritz. Gorago atarietako sarbideen kokapenaren inguruan adierazitakoari jarraituz, sarbidea espazio publiko edo ibilbide nagusietan kokatzea proposatzen da.
- Atariarekin zein espazio publikoarekin harreman bisual zuzen eta zabala izango duela aurreikustea proposatzen da, barrutik kanpora eta baita alderantziz ere.

Lokalaren edukierari buruz dagokionez, proposatzen da:

- Dekretuak ezartzen dituen **minimoak** gainditzea. Adibidez, "Bizitza guztietarako etxeak"⁸ gidak gomendatzen du lokal horren edukiera kalkulatzeko eraikineko bizigela-kopurua hartzea oinarri, etxebizitza-kopurua hartu ordez. Proposamen zehatza da eraikineko bizigela bakoitzeko ibilgailu bana (bizikleta, haur-orga, gurpildun aulkia, scooter-a...) kalkulatzeko.

Lokalaren tamainaren kalkuluari dagokionez, proposatzen da "Guía de recomendaciones para el diseño de infraestructura ciclista"⁹ dokumentuaren gomendioei jarraitzea:

- Espazioaren antolaketa ohikoena aurreikustea. **Gutxienez:** erdian 2,00 metroko pasabide bat, alde banatara 2,00 metroko aparkaleku-zerrendak dituelarik, 60cm-tako tartea utziz ilarako bizikleten artean.
- Tentuz hartzea espazioa aurrezteko sistemak edo gailuak (bizikletak bertikalean gordetzeko, bata bestearen gainean jartzeko, elkarren arteko tartea murrizteko...), ia guztiek ahalegin fisikoa eskatzen baitute, edo eta erabilera zailtzen.

⁷ 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.


⁸ "BIZITZA GUZTIETARAKO ETXEAK. Etxebizitza kolektiboen proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko gida" (Eusko Jaurlaritza, 2023).

https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=053100&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

⁹ "Guía de recomendaciones para el diseño de infraestructura ciclista" (Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, 2023)

<https://esmovilidad.transportes.gob.es/estrategia-estatal-por-la-bicicleta/guia-de-recomendaciones-para-el-diseno-de-infraestructura-ciclista>

Guzti honek beheko solairuari orain arte ateratzen zitzaion etekinaren inguruko ikuspegia aldatzea dakar, noski. Beste ardatz askotatik bezalaxe, genero-ikuspegitik proposatzen da bizikleta-gelari emango zaion espazioa positiboa dela oso, eta balio erantsi gisa komunikatu behar dela etxebizitzaren sustapen zein salmentan. Dena den, nabarmena da ondorioak ez direla berberak tipologia bat izan edo beste bat: beheko solairuan lokalak dituzten eraikinetan errazagoa izango da azaleraren zati bat erabilera berri honetara bideratzea, aldiz beheko solairuetan etxebizitzak dituzten tipologiatan betekizun honek "min" gehiago egin dezake.



Goiko bi irudietako sistemek pertsona heldu estandar baten indarra eskatzen dute («Los soportes de pared y techo optimizan el espacio disponible en planta, pero requiere un esfuerzo físico por parte del usuario.») eta behekoak, gainera, eguneroko erabilera zailtzen du («Requieren que se levante la bicicleta en el manillar, lo que supone un esfuerzo notable para personas menos capaces físicamente y dificulta su uso si las bicicletas están equipadas con cestas o asientos para niños, disuadiendo en consecuencia el uso de la bicicleta.»).

Proposamen zehatza, ELI-6 eremurako:

- Etxebizitza bakoitzeko 2 bizikleta hartzeko espazioa aurreikustea, kalkulu orokor horretan haur-orgak, gurpildun aukiak edo eta scooter-ak ere barne hartuz.
- Adibide gisa, 26 etxebizitzako eraikin baten beharrak asetzeko 52 bizikletentzako neurriak kalkulatu beharko genituzke: 6,00m zabal ($2,00+2,00+2,00$) eta 16m luze ($26*0,60$). Honek 100m^2 inguruko azalera eskatuko luke, ez da txantxa gero!
- ▶ Ikus aurreko planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.


Honetaz gain, Dekretuak ezartzen duen garbiketa-gela aurreikusi beharko litzateke:

- Genero-ikuspegitik ez zaio eskakizun berezirik egiten espazio honi.

Atarietarako sarbideak bistan izango direla bermatzea, ikus-eremu zabalekin.

Genero-ikuspegitik egiten diren aldarrikapen zein proposamenetan ohiko gaia da hau. Izan ere, ulertu behar da herrian zehar egiten ditugun joan-etorrien artean, badagoela bat, bai ala bai, nahitaezko pasagunea dena: etxeke ataria hain zuzen.

- Gorago adierazi bezala, beheko solairuetako etxebizitzetako terrazak maximizatzeak eraikinaren eta espazio publikoaren arteko harremana kaltetzen du, ondorio negatiboak eraginez segurtasunaren, ongizatearen edo eta zainketen gainean.
 - Batetik, terrazek ahalik eta espazio gehien okupatzeko irizpideari jarraitzen zaiolako ia beti, espazio publikoaren eta pribatuaren arteko tarterik utzi gabe. Ondorioz, ohikoa da espazio publikotik atariraino iristeko terrazaren artean pasatzen den pasabide estu bat aurreikustea proiektu gehienek.
 - Bestetik, eraikinen beheko solairua espazio publikoarekin harremanean jartzen duten planoak itsuak izaten direlako 2m inguruko garaieraraino ia kasu guztietan, askotan 3m-taraino iritsiz: metro bat terrazaren kotaraino, beste bat terrazaren petoari dagokiona, eta beste bat gehiago haren gaineko itxiturari dagokiona (azken hau proiektugileek edo erabiltzaileek itsu bilakatu ohi dute askotan).
 - Ez da gutxietsi behar beste alderdi bat, aurreko tipologiarekin lotua: espaloi aldera eraikinen fatxadak bizpahiru metroko alturako plano itsuak direnean, eta espaloi horiek zabalera "normala" badute (3m ELI-6 eremuko kale nagusian, bi alternatibatan), espaloia bera "pasabide estu" gisa hauteman dezakete batzuk, goiko puntuan adierazitako zentzu berean. Alegia, albo batean horma fisikoa eta bestean kotxez osatutako beste "horma" bat sortzen denean, espaloia nahitaezko pasabidea bilaka daiteke, ihesbide gutxikoa. Parte-hartze prozesuan bertan —eta ez da arraroa halako ekarpenak jasotzea antzeko prozesuetan— partaide batek adierazi zuen berak nahiago zuela gauez hormen artean edo atzekalde batean zehar iristea, aparkatutako kotxeek mugatutako espaloien zehar ibili beharra baino.
- ▶ **Ikus hurrengo planoetan gomendio hauen inguruan hautemandakoak:**
- Lehenengo alternatibatan atarietara sarbideak oinezko ibilbide nagusi batetik egiten dira (alderdi positiboa) baina atarirainoko pasabideak estuegiak dira: gutxi gorabehera 5m luze izanik, 2,5m inguruko zabalera daukate batzuk (lauek, babestuetara eta tasatuetara), edo are gutxiago, 2m ingurukoa besteek (seik, libreetara).
 - Bigarren alternatibatan hauteman den arazo nagusia etxebizitza libreetara daraman oinezko ibilbideen ingurukoa da. Itxura batean espazio pribatu bati buruzko oharak izango badira ere, erasoan aurreko segurtasun-pertzepzioari dagokionez berdin-berdin lirake aplikagarriak. Irudian jaso den kasuan, sarbideak ez dira egiten oinezko ibilbide nagusi batetik egiten, eta gainera atarirainoko pasabideak estuegiak dira: gutxi gorabehera 5m luze eta 2m inguru zabal.
 - Gomendio zehatza, ELI-6 eremurako: atarietara sarbide guztiak ibilbide edo espazio publiko nagusietatik egitea, eta atarietara iristeko terrazaren arteko pasabiderik balego, hauek luzeagoak baino zabalagoak izan beharko lukete. Eta gainera




Atarietarako sarbideak bistan izateko eta horien inguruan ikus-eremu zabalak bermatzeko gomendioaren inguruan hauteman diren arazoak adierazi dira irudietan, lehenengo alternatibakoak (goian) zein bigarrenekoak (behean).




Garajeetarako sarbideak birplanteatu, kotxeek oinezkoen eremuetan eragiten dituzten kalteak murrizteko.

Edozein norabidetan leku guztietara iristeko aukerak berak trafikoa areagotzen du, eta horixe eragozte aldera, eremuaren barnealdeko bideen diseinuan aldaketak proposatzen dira:

- Garajeetara bidean, kotxeek oinezko eremu nagusiak (joan-etorri askoko espaloiak, espazio publiko garrantzitsuak) ez gurutzatzea proposatzen da.
 - Orokorrean, sarbideak konzentratzea, arrisku-guneak gutxitzea helburu. Proposamen honen onura nabarmenagoa da, konzentratzearekin batera, kotxeak oinezko eremu nagusiak gurutzatu gabe sartzen badira garajeetara.
- ▶ **Ikus hurrengo planoetan gomendio hauen inguruan hautemandakoak:**
- Lehenengo alternatiban, 100 etxebizitzari dagokion garajerako sarbidea litzateke arazo nabarmenena. Proposatzen da sarbidea Sibeluts kaletik egiteko aukera aztertzea. Gainera, ekipamendu publikoen inguruan nabarmendu den egoera ere saihestea gomendatzen da, zebrabideak eta garajeetarako sarbideak bata bestearen ondoan jartzea alegia.
 - Bigarren alternatiban, garajeetara sarbide gehienek eragiten dituzte arazoak. Arrisku-egoera larrienak eragingo lituzkeen sarbidea da beheko solairuan erabilera tertziarioa duen eraikinekoa. Plangintza-fase honetan ez legoke neurri zuzentzailerik sarbide honetarako, ezta etxebizitza libreei dagokion sarbiderako ere. Aldiz, babes ofizialeko 56 etxebizitzei dagokion sarbidearen inguruan, proposatzen da sarbidea Sibeluts kaletik egiteko aukera aztertzea.



Garajeetara bidean kotxeak oinezkoen eremu nagusienetan eragin ditzaketen kalteen inguruan hauteman diren arazoak adierazi dira irudietan, lehenengo alternatibakoak (goian) zein bigarrenekoak (behean).



Kaleak eta mugikortasuna

Lehenengo parte-hartze saioan "Kaleak eta mugikortasuna" lantaldeak egindako proposamenak



Zer EZ egin?

- Bi norantzako kaleak.

Zer egin?

- Garraio publikoa bultzatu (Xorrola ez da zonalde horretatik pasatzen).
- Oinezkoen bideak lehenetsi (eremuak oinezko itxura izan dezala).
- Diseinua erabili kotxeak moteltzeko.
- Norantza bakarreko kaleak.
- Ikastetxeetako sarrera/irteerak jasangarriagoak egin.
- Autobus geltokietara ibilbide erosoak egokitu eta seinalezatu (kartelak).
- Bizilagun berriei galdetu nola mugituko diren (Elizaldeko "BlaBlaCar" bat?).
- Plaza aldean Rafael Pikabea oinezkotu, eta trafikoa Yon Oñatibiara pasa (oinezkoentzako gaur egun).
- Kanean aparkatzeko aukera eman ordez, garapen berrian jarri behar diren aparkaleku guztiak eremu bakarrean kontzentratu.
- Kotxeei trabak jarri.
- Udal lokalak egokitu bizikletak aparkatzeko.

Lanketa teknikoan zehar sortutako irizpideak zein parte-hartze prozesuan jaso diren ekarpenak uztartuz, hainbat proposamen osatu dira esparru honetan genero-ikuspegia txertatzeko. Hasteko, laburpen-taula batean adierazi da zein neurritan aurreikusten den eragin dezaketela proposamen horiek genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean (ikus eraginaren inguruko justifikazioa 2_Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak atalean).

Kaleak eta Mugikortasuna Proposamenen eragina genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean	Segurtasuna — Babesa — Irisgarritasuna Mugikortasuna — Ongizatea — Elkarbizitza Zainketa-lanak — Presentzia							
	Seg	Bab	Iri	Mug	Ong	Elk	Zai	Pre
Topografia berriaren ezarpenean oinezkoen ibilbide nagusien irisgarritasuna lehenetsi.	•	•	●	●	●	•	●	•
Sarearen diseinua aldatu, oinezko eta bizikletazko joan-etorriak lehenesteko.	●	●	●	●	●	•	●	•
Sarearen diseinua aldatu, trafikoa eta bere abiadura murrizteko.	●	●	•	●	●	•	•	•
Aparkalekuen eskaintza eta kokapena aldatu, trafikoa murrizteko eta espazio publikoa hobetzeko.	●	•	•	●	●	•	•	•
Bidegorriaren trazadura Mugikortasun Planera egokitu.	●	●	•	●	●	•	•	•
Eraikinetako erabilerak eta diseinu orokorra birplanteatu, oinezko joan-etorriak seguruagoak eta atseginagoak izan daitezzen.	●	•	•	•	•	•	•	•

Topografia berriaren ezarpenean oinezkoen ibilbide nagusien irisgarritasuna lehenetsi.


Plangintza mailan proiektuen lehen faseetan hartzen diren erabakiek oinezko ibilbideen irisgarritasuna baldintzatzen dute. Neurri prebentibo gisa, gomendatzen da araudiak ezartzen dituen langatara gehiegi ez hurbiltzea, batez ere oinezkoen ibilbideen maldei dagokienez:

- "Ibilbide nagusien" kasuan, %6ko malda maximoa dauka ezarria araudiak: baldintza hori betetzen duten ibilbideek ez dute atsedengunerik behar, ez eta laguntza-elementurik (adib. eskudelak¹⁰ albo bietan). Hau ikusirik, hiri-plangintzako tresnetan oinezkoen ibilbideen maldek %5a ez gainditzea gomendatzen da. Badaezpadako "koltxoi" horri esker, hurrengo faseetan doikuntzak egin ahal izango dira, edo tarte horizontalak txertatu (adib. zeharkako sarbide bat eskailera, zebrabide edo eraikin batetara).
 - %6ko malda gainditzen duten ibilbideak "arrapala" gisa hartzen ditu araudiak, %8ko maximoa ezartzen dielarik: malda horrekin gehienez 10m-ko aldapak onartzen ditu, 2m-ko tarte horizontalak txertatzea eskatzen duelarik, bai eta laguntza-elementuak jartzea ere (adib. eskudelak albo bietan). Hau ikusirik, orokorrean arrapalak saihestea gomendatzen da, eta halakorik jartzekotan, %7a ez gainditzea neurri prebentibo gisa.
 - Irizpide orokor gisa, espazio publiko garrantzitsuetan eta horien arteko lotura nagusietan eskailera saihestea.
- Ikus hurrengo planoan gomendio hauen inguruan hautemandakoak:
- Etxebizitza libreetako bigarren eraikinerara sartzeko, oinezkoek arrapala bat jeitsi behar dute, eraikin bat eta bestearen artean 2m-ko garaiera-aldea dagoelako. Goiko eraikineko hirugarren atariko sarbideetik beheko eraikineko atariko lehenengo sarbidera 29m inguruko arrapala dago (irudian borobilduta): 2m-ko bi atsedengune

¹⁰ Eskailera zein aldapetako alboetan jartzen den hodia, eskuekin helduta errazago eta seguruago ibiltzeko ("pasamanos" gazteleraz").

sartu behar direnez, guztira 25m-ko "arrapala garbia" geratzen da kota batetik bestera jeisteko. Honek esan nahi du %8-ko maldako arrapala batean gora eta behera ibili beharko luketela bertako biztanleak bizi osoan eta egoera guztietan, jakinik une honetan daukagun araudiak ez duela malda hori gainditzen duen ibilbiderik onartzen.

- Kalearen erdi aldera (giltza batez adierazia irudian), espaloari 3m-ko garaiera-aldea hauteman zaio 55m inguruko luzeran. Horren arabera, "oinezkoen ibilbide nagusia" den horrek %5,5-eko malda izango luke, araudiak ezartzen duen %6-ko maximotik hurbilegi. Horrek doikuntzak egiteko aukera gutxi uzten du: adibidez, ibilbide horren erdian 5m inguruko zabalerako eskailera bat elkartzen zaio espaloari: harekin bat egiten duen tartean espaloia horizontalean jarriko bagenu, 55m izan ordez 50m-tako "ibilbide garbia" izango genuke 3 metroak gainditzeko: honek %6-ko bi tarte izatea eragingo luke, berriro araudiak ezartzen duen muga-mugan kokatuz.
- Eremuan hainbat eskailera ere ikusten da: marra eteneko lerroen bitartez adierazi dira eskailera horietan zehar ibili ezin direnek egin beharko lituzketen ibilbide laburren bi adibide.



Topografia berriaren ezarpenerako proposamenen inguruan hauteman diren hiru arriskuen adibideak, bigarren alternatibaren gainean.

Sarearen diseinuaren bitartez trafikoa murriztu.

Edozein norabidetan leku guztietara iristeko aukerak berak trafikoa areagotzen du, eta horixe eragozte aldera, eremuaren barnealdeko bideen diseinuan aldaketak proposatzen dira:

- Elorrondo eta Sibeluts kaleen arteko trafikoa mugatzea edo moztea.
- Gainera, gaur egun Manuel Lekuona eta Tolarieta artean Elorrondo kaleak norantza bakararekin zerbitzu egokia ematen duela ikusirik, proiektuan Elorrondoko blokeen inguruan proposatu den bidea baita ere norantza bakarrekoa izatea.

- Eremuaren erdi-erditik Haurtzaroko eta Urmendiko kanpo-espazioetara ibilgailuentzako lotura bat baztertzea (bide hori HAPOk jasotzen zuen, eta alternatibaren batean mantendu da).
- ▶ Ikus hurrengo planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.
 - Eremuaren mendebaldean: Sibeluts kalea eremuaren barnealdearekin lotuko duen bidea (bi norantzako plataforma bakarra, adib. abiadura-max10): irteerarik gabeko bidea litzateke, soilik etxebizitza babestu zein tasatuetako garajeetara, edo eta azalera gainean dauden aparkalekuetara (80 inguru) joateko.
 - Eremuaren ipar-ekialdean, bi tarte proposatu dira: bata, Rafael Pikabea eta Elorrondo#2ko bidegurutzearen artean (adib. bi norantza eta abiadura-max30), eta bestea, Elorrondo#2ko bidegurutzearen eta Manuel Lekuona artean, Elorrondoko blokeen arteko zirkuitua litzatekeena (adib. norantza bakarrekoko plataforma bakarra eta abiadura-max20).
 - Esan gabe doa, eremua antolatzen duen bide honetan trafikoa etetze hutsak ingurune babestuago eta osasungarriago bat eragingo lukeela. Trafikoa eteteak ez du esan nahi bide hori desagertzen denik: zoladuran bide-izaera nabarmendu gabe ere, oinez zein bizikletaz ibiltzeko berdin-berdin balioko luke, bai eta baimendutako ibilgailuetan tarteka pasatzeko ere.
 - Kentzea proposatzen den tartean biribilguneak agertzen dira (bat edo bi, aztertutako alternatibaren arabera): noski, tarte hori kentzearekin batera kenduko lirateke biribilguneak.

Sarearen diseinuaren bitartez trafikoaren abiadura baretu.

- Oinezkoen lehentasuneko eremu zabalak ezartzea eta planoetan adieraztea proposatzen da, urbanizazio-proiektuan diseinua eta zoladura helburu horrekin ezartzea eskatuz.
- Adibidez, aurreko proposamenean plataforma bakarrekoko izatea iradoki den kale-tarteetan.
- ▶ Ikus hurrengo planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.

Sarearen diseinuaren bitartez oinezko eta bizikletazko joan-etorriak lehenetsi.

- Orokorrean, oinezko eta bizikletazko ibilbide-sarearen diseinuan eta ekipamenduan SBIZA¹¹ irizpideei jarraitzea proposatzen da.
- Elizalde Txararekin eta igerilekuarekin zuzenean lotzeko oinezko eta bizikletazko ibilbide bat aurreikusi, kotxeen trafikorik izango ez duena. "Kaleak eta mugikortasuna" atal honetako proposamenean aplikazioaren adibideak plangintzako alternatiba baten planoaren gainean egin dira: oinarri gisa hartu den alternatibak jaso du gisa honetako lotura Elizaldetik Txara aldera.
- Etxebizitza atalean jaso dira zenbait proposamen, etxebizitza-erakinen ezaugarrien bitartez oinezkoen joan-etorriak seguruagoak eta atseginoagoak egiteko.
- ▶ Ikus hurrengo planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.

Aparkalekuen eskaintza eta kokapena aldatuz trafikoa murriztu eta kalitatezko espazio publikoak sortu.

- Eremu barruan azalera gaineko aparkalekuen eskaintza murriztu: eremuaren bazterrera lekualdatuz edo ekipamenduen behe-solairuetan kokatuz.

¹¹ SBIZA: Babestua, irisgarria, segurua, zuzena, eroso eta atsegina. Ikus taula atalaren amaieran.

- Jakinik auzoan aparkaleku-plazen superabita dagoela,¹² eremu barnean erraz eta merke aparkatzeko aukerak murrizteak bi helburu nagusi lituzke: batetik, trafikoa murriztea,¹³ eta bestetik, espazio publikoak sortzea edo hobetzea.
- ▶ Ikus hurrengo planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.
 - Aurreko proposamenaren ondorio zuzena da Elorrondo eta Sibeluts kaleen artean "kendutako" tartean dauden 38 aparkalekuak hilerri aldera lekualdatzea: batetik, Urmendi Haur Eskolaren iparraldekoak (14), eta bestetik, hauen eta biribilgunearen artean bidearen alde banatara daudenak (12+12).
 - Aparkalekuak 100-250 metro urruntzeak ez lieke ia kosturik eragingo kotxe-erabiltzaileei (aldapa handirik gabe 2-4 minutu ibili behar): aparkalekua eta Elizalde zuzenean lotzeko oinezko lotura bat jar liteke Urmendiren mendebaldean, bi zebrabide gehituz.
 - Ordainetan, espazio publiko garrantzitsu bat irabaziko litzatekelarik eremuaren erdigunean, Urmendiren eta Uztaroren ondo-ondoan gainera. Honen onura ez da nolana hikoia. Adibidez, eskola-egunetan kotxerik gabeko eremu partekatu handi bat izango bait lukete haurrek eta zaintzaileek, goizetan lasai iristeko eta arratsaldetan are lasaiago elkartzea ahalbidetuko lukeena.
 - Gainera, bi ekipamendu publikoen arteko zenbait aparkaleku kentzeko aukera aztertzea proposatzen da (adibidez, Madalensoroko futbol zelaiaren azpiko garajeetara daraman kalekaren ondora lekualdatuz). Proposamen honen helburua da aparkaleku gutxi batzuek espazio publikoari eragin diezaioketen onura bistaratzea, kasu honetan bi ekipamenduen arteko espazioan segurtasuna areagotuz eta hiri-paisaia nabarmen hobetuz.

Bidegorriaren trazadura Mugikortasun Planera egokitu.

- Planoetan bidegorriak ipar-hego norabidean zeharkatzen du ELI-6 eremuaren ekialdea. Horren ordez, Mugikortasun Planak ezarri duen Rafael-Pikabea-Txara-Mendibil ardatzera egokitzea proposatzen da. Xehetasun gehiagoren faltan, genero-ikuspegitik egokiagoa ikusten da ardatz hori Rafael Pikabeako trafikotik bananduta mantentzea, eta beraz, Tolarieta etxadiaren iparraldetik igaro ordez, bere hegoaldeetik pasatzea, ELI-6 eremuaren iparraldetik alegia.
- ▶ Ikus hurrengo planoan proposamen honen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean.

¹² Oiantzungo HMJPren arabera, aparkaleku kopurua ibilgailuena baino %18 altuagoa da.

¹³ Oiantzungo HMJPren arabera: "Ikerketek diote aparkatzeko gehiegizko eskaintza dela, askotan, kotxea erabiltzeko lehen arrazoi".




"Kaleak eta mugikortasuna" proposamenen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean: bista osoa.



"Kaleak eta mugikortasuna" proposamenen aplikazioaren adibide bat lehenengo alternatibaren gainean:
Sibeluts aldea.



"Kaleak eta mugikortasuna" proposamenen aplikazioaren adibide bat lehenengo alternatibaren gainean: Elorrondo aldea.



S.B.I.Z.A.

Hiriko mugikortasun-sareen diseinuan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak

Segurua

- "Ikusi eta ikusia izan" irizpidearen lehen zatia: ibilbide nagusietan ikus-eremu zabalak bermatzea, ezkutalekuak saihestea, argiztapen egokia eskainiz, etab.
- "Ikusi eta ikusia izan" irizpidearen bigarren zatia: ibilbide nagusiek eremu bakartiak zeharkatzea saihestuz, inguruko espazio publikoetatik zein eraikinetatik (batez ere behe-solairuetatik) berezko zaintza sustatuz, etab.
- Nahitazko pasabideak bereziki zaintzea, ahal bada ibilbide alternatiboak edo ihesbideak eskainiz.

Babestua

- Trafikoak eragindako arriskuetatik babesteko trafikoa bera eta bere abiadura murriztea, erreferentzia gisa zaurgarrienak (beharrak, gaitasunak, ohiturak...) kontuan hartuz.
- Aurreko irizpidea bereziki bermatzea oinezkoek ibilgailuekin partekatzen dituzten eremuetan: ohikoa da zaurgarrienek (desgaitasunak dituztenek, haur txikien zaintzaileek...) adieraztea nahiago dituztela oinezkoen eta ibilgailuen bideak bereizten dituzten diseinuak.
- Oinezkoek eta ibilgailuek partekatzen dituzten eremuetan, ingurunearen diseinuaren bitartez bermatu ibilgailuen abiadura oinezkoen pausura egokituko dela.
- Oinezkoen lehentasuna diseinuaren bitartez adierazi: trafikoari lotutako seinaleztapena saihestuz, asfaltoa eta antzeko azalerak saihestuz, zoladuran ibilgailuen bidea nabarmentzea ekidinez...

Irisgarria

- Araudiak eskatzen dituen gutxieneko betekizunak betetzearekin ez konformatzea, batez ere oinezkoen ibilbideen maldei dagokienez: neurri prebentibo gisa, hiri-plangintzako tresnetan maldak %5a ez gainditzea gomendatzen da.
- Araudiak aintzat hartzen ez dituen bi alderdi kontuan hartzea: batetik, ahalegin fisikoa; eta bestetik, laguntzaileen eta zaintzaileen beharrianak zein presentzia bera ("elkarrekin doazen bi gorputz").

Zuzena

- Kotxeen ibilbideen arabera antolatutako oinezko-sareen logika birplanteatzea, oinezko ibilbide zuzenak intuitiboak eta jarraiak lehenetsiz.
- Oinezkoen ibilbideetan itzulinguruak eta desbideraketak saihestea: adibidez, zebrabideen kokapena birplanteatuz.

Atsegina

- Oinezkoen ibilbide eroso eta erakargarriak proiektatzea: trazadura (trazadura bera, ibilbideak zeharkatzen duen ingurunearen kalitatea edo interes-maila...), babes-mailan (euriarekiko edo eguzkiarekiko, trafikoaren zaratarekiko...), ekipamenduan (hiri-altzariak, argiztapena, landaretza...).
- Oinezkoen joan-etorriez gain, topo egitea edo elkartzeari bezalako jarduera sozialak aurreikustea sarearen diseinuan eta ekipamenduan.

Espazio publikoak

Lehenengo parte-hartze saioan "Espazio publikoak" lantaldeak egindako proposamenak



Zer EZ egin?

- Aisia edo elkarguneak tabernetara mugatu.
- Plaza oso handiak.
- Aparkalekuei eman lehentasuna.
- Eskailera oso luzeak.

Zer egin?

- Espazio publikoaren inguruko hausnarketa.
- Espazio publikoa erabiltzeko herritarrei eman lehentasuna.
- Eremu goxoak sortu (berdeguneak, itzala, iturria, komuna, eserlekuak, eremu estaliak, mahaiak...).
- Jolastoki txikiagoak, bat baino gehiago (Ikastolako parkea ikusi behar da eta aztertu, osagarri eginez).
- Bidegorriarekin lotura egin.
- Topografiara moldatu.
- Bizikletentzako aparkalekuak.
- Garraio publikoa Xorrolarekin lotu.
- Kirola kalean egiteko aukera, adib. kalistenia (Txaran badago).
- Txakurrentzako eremu bat (horrela kakak saihestu), txakurrentzako edukiontzia.
- Ekipamendu publikoak (Udal Liburutegia?): berariazko eraikinetan, ala bizitoki-eraikinetako behe-solairuetan txertatuz?

Lanketa teknikoan zehar sortutako irizpideak zein parte-hartze prozesuan jaso diren ekarpenak uztartuz, hainbat proposamen osatu dira esparru honetan genero-ikuspegia txertatzeko. Hasteko, laburpen-taula batean adierazi da zein neurritan aurreikusten den eragin dezaketela proposamen horiek genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean (ikus eraginaren inguruko justifikazioa 2_Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak atalean).

Espazio publikoak Proposamenen eragina genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean	Segurtasuna — Babesa — Irisgarritasuna Mugikortasuna — Ongizatea — Elkarbizitza Zainketa-lanak — Presentzia							
	Seg	Bab	Iri	Mug	Ong	Elk	Zai	Pre
Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.	●	●	●	●	●	●	●	●
Etxebizitzen inguruan kalitatezko espazio publiko seguru eta atseginak aurreikusi.	●	●	●	●	●	●	●	●
Parkeez gain, espazio publikoetan zoru naturalak eta zuhaitzak aurreikusi, ugari eta askotarikoak.	●	●	●	●	●	●	●	●
Joan-etorrietara bideratutako espazio publikoen kalitatea kontuan izan.	●	●	●	●	●	●	●	●

Ekipamendu publiko berrien eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.

- Kaleak eta mugikortasuna atalean oinezko mugikortasunaren aldeko proposamenak egin dira, bai eta ekipamenduak eta establezimenduak kokatu diren puntuetan kotxeen presentzia (trafikoa, aparkalekuak) murriztea helburu dutenak ere. Neurri hau ez da nahikoa inguruan kalitatezko espazioak bermatzeko, baina nahitaezko abiapuntu gisa hartzea proposatzen da.
- Uztaroren eta Urmendiren ondoan kalitatezko espazio publikoa aurreikusi, zainketa-lanak eta jolasa kontuan izango dituenak. Horretarako, espazio publiko horren kotak bereziki zaintzea gomendatzen da, zentru horietako kanpo-espazioekin ahalik eta modu zuzen eta irisgarrienean elkartzeko aukera emateko.
- Gainera, erabilera publikoko eraikinetako behe-solairuetan trantsizio-elementuak aurreikusi: gurean, aterpeak dira trantsizio horretarako elementu ohikoenak. Espazio hauei esker, ekipamenduak espazio publikora "isurtzea", eta alderantziz, espazio publikoa barruetara sartzea sustatzen da. Honek eragin positiboak ditu genero-ikuspegitik: ez soilik eguraldi txarretik babesa eskaintzen dutelako, tarteko espazio hauetan jarduera sozialak konzentratu egiten direlako baizik, besteak beste elkarbizitza sustatuz edo zainketa-lanak erraztuz.

Etxebizitzen inguruan kalitatezko espazio publiko seguru eta atseginak aurreikusi.

- Pertsona batzuentzako edo bizitzako zenbait fasetan, oso garrantzitsua da etxetik hurbil (atari ondoan, zertxobait urrunago...) kalitatezko espazio publiko atseginak eskura izatea. Pertsona horien ongizaterako ezinbesteko baliabideak dira, eta halaxe erabiltzen dituzte egunero gure auzoetako milaka plazatxo adinekoek, gaixo edo mendekotasun-egoeran daudenek, etab. Gainera, genero-ikuspegitik garrantzitsua da ulertzea baliabide hauek eskura izateak zaintzailearen lan-zama arintzen laguntzen duela.
- Orain arte ikusi diren proposamenetan, ia etxebizitza-eraikin guztietan behe-solairuan terrazadun etxebizitzak daude, terraza horiekin eraikinaren eta espaloiarenekin arteko espazioa okupatzen delarik. Honek etxe ondoan atseden hartzea, jolasa, elkartzea eta antzekoak gertatzeko aukerak murrizten ditu.


- Gai honen inguruko proposamena Etxebizitza atalean landu da, espaloien eta etxebizitza-eraikinen artean "trantsizio-zerrendak" jartzea proposatu denean.
- Bide beretik, eta Etxebizitza atalean bertan, etxebizitzen eta espazio publikoaren arteko lotura bisualaren garrantzia azpimarratu da, kasu honetan espazio publiko seguruagoak eta bizigarriagoak lortze aldera.

Espazio publikoetan zoru naturalak eta zuhaitzak aurreikusi: ugari eta askotarikoak.

- Jakina da "azpiegitura urdin eta berdeen" eragin positiboa osasun fisiko eta mentalaren gainean. Eta jakina da baita ere horrelako inguruneak eguneroko bizitzan eskura izateak onura nabarmenagoak eragiten dituela ongizaterako baliabide material gutxiago dituztenengan. Fase honi alderdi hauek zehaztea ez badagokio ere, neurri prebentibo gisa proposatu da aurreikuspen hau.
- Aurrekoaren bide beretik, proposatzen da aurreikustea eremu eta elementu naturalen erabilera espazio publiko zabalak egituratzeko baliabide gisa: izan ere, badakigu espazio publiko txikiegiak bezain desatseginak izan daitezkeela handiegiak.
- Zentzu honetan, ez da baztertu behar planoetako adierazpen grafikoan alderdi honi garrantzia emateak izan dezakeen eragina ondoren iritsiko diren proiektuen gainean: ez baita gauza bera plaza bat hasiera-hasieratik "gogorra" ala "naturalizatua" marraztea planoetan. Gainera, kontuan izan behar da alderdi hau gero eta garrantzitsuagoa izango dela euri-uren hustuketa eta kudeaketa jasangarriak diseinatzeakoan.
- Alderdi zehatzagoei begira, bada espazio publiko bat edo beste garaje baten gainean eraikia. Horrelakoetan, eta kotak doitze aldera, proposatzen da aurreikustea garajeetako sabaien gainean lur naturaleko geruza bat (80cm-takoa adibidez) aurreikustea, espazio horietan zuhaitzak landu ahal izateko.

Joan-etorrietara bideratutako espazio publikoen kalitatea kontuan izan.

- Kotxeei begiraturaz gero, kale batek zirkulatzeko eta aparkatzeko baino gutxi gehiagorako balio du. Baina oinezkoei erreparatzen bazaie, aurrera eta atzera zirkulatzeko baino askoz jarduera gehiago egiten dituzte (ditugu) kalean, atsedenaekin, ongizatearekin, elkarbizitzarekin edo zainketa-lanekin lotuak asko eta asko. Horregatik, espaloiak ez lirateke ulertu behar "oinezkoen hodi" gisa: espazio sozial gisa planteatzea eta jarduera sozialen sustapena helburu jartzea proposatzen da.
- Helburu horietarako baliabide garrantzitsu asko eta asko plangintza-fase honetatik kanpo geratzen dira. Baina badira kontuan har daitezkeen hainbat aldagai: espaloien konfigurazio espaziala (aparkatutako kotxeen eta orma baten artean doazen zerrenda gisako espaloiak hauteman dira), ondoko eraikinekin harremana (behe-solairu "itsuen" ondoan doazen espaloiak hauteman dira), etab.



"Kaleak eta mugikortasuna" proposamenen aplikazioa lehenengo alternatibaren gainean: sortuko litzatekeen espazio publikoan, Udaletxe aurreko Done Eztebe plaza adinako lau sartuko lirateke. Aukera bikaina izanik, azalera zabal horrek baditu eskalarekin lotutako eragozpenak: izan ere, espazio publiko txikiegiak bezain desatseginak izan bait daitezke handiegiak, besteak beste egunerokotasunean ongizatearekin edo harreman sozialekin lotutako jarduerak eragiteko gaitasuna galtzeko arriskua aurreikus daitezke larrik.



Ekipamendu publikoak eta lokalak

Lehenengo parte-hartze saioan "Ekipamendu publikoak eta lokalak" lantaldeak egindako proposamenak



Zer EZ egin?

- Parking erraldoiak (bai, ordea, etxeen azpian).
- Altuera handiko etxeak.

Zer egin?

- Emakumeen Etxea:
 - Formatzeko.
 - Elkartzeko, belaunaldi desberdinak topatzeko.
 - Arreta emateko.
 - Aretoa: zineforuma...
- Musika Eskola berria.
- Muxikoak, dantza... egiteko lokala.
- Parkea, lorategia... Helduentzat zein haurrentzat.
- Paseo edo ibilbidea kiroldegia eta ELI-6 elkartuko dituen, baita bidegorriarekin ere.
- Lokalak:
 - Kafetegia.
 - Denda txikiak?
- Iturriak, komunak...

Ikus daitekeen bezala, parte-hartze prozesuan jasotako ekarpen gehienak Plan Partzial baten eskumen-esparruaz harago leudeke. Alderdi hori kontuan izanik, batez ere lanketa teknikoan zehar sortutako irizpideetan oinarrituz hainbat proposamen osatu dira esparru honetan genero-ikuspegia txertatzeko. Hasteko, laburpen-taula batean adierazi da zein neurritan aurreikusten den eragin dezaketela proposamen horiek genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean (ikus eraginaren inguruko justifikazioa 2_Genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak atalean).

Ekipamendu publikoak eta lokalak Proposamenen eragina genero-ikuspegia txertatzeko irizpideen gainean	Segurtasuna — Babesa — Irisgarritasuna Mugikortasuna — Ongizatea — Elkarbizitza Zainketa-lanak — Presentzia							
	Seg	Bab	Iri	Mug	Ong	Elk	Zai	Pre
Ekipamendu publikoen kokapena egokia da, kaskotik gertu eta Elorrondo kalearen ondoan.	●	●	●	●	●	●	●	●
Erabilera tertziarioa ekipamendu publikoen ondoan jarri, jardueren ezarpena eta hiri-bizitasuna sustatzeko.	●	●	●	●	●	●	●	●
Erabilera tertziarioan azalera handiko jarduerak ezartzea saihestu.	●	●	●	●	●	●	●	●
Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.	●	●	●	●	●	●	●	●
Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen inguruko ibilbideetako eta espazioetako irisgarritasuna bermatu.	●	●	●	●	●	●	●	●

Ekipamendu publikoen kokapena egokia da, kaskotik gertu eta Elorrondo kalearen ondoan.

- HAPOTik datorren erabakia da, eremua kaskoarekin lotzen laguntzen du.
- Elorrondo kalearen "ekipamendu publikoen ardatz" izaera indartzen du.
- Ekipamendu publikoak Elorrondo kalearen alde banatan kokatu dira. Honek kalearen izaera diseinuaren bitartez ezartzea eskatzen du. Adibidez, ELI-6 eremuko tartean, Elorrondo kalearen iragazkortasuna sustatu beharko litzateke, bi ekipamenduen arteko oinezko joan-etorri seguru, irisgarri eta zuzenak bermatuz.

Erabilera tertziarioa ekipamendu publikoen ondoan jarri, jardueren ezarpena eta hiri-bizitasuna sustatzeko.

- Auzo-mailako jarduera tertziarioak onuragarriak dira, ez soilik genero-ikuspegitik, beste arrazoi asko daude horiek sustatzeko auzo eta herri bizigarriak nahi baditugu. Gaur egungo testuinguruan tokiko jardueren bideragarritasuna zaila dela jakinik, kaskotik hurbil eta ekipamendu publikoen ondoan jartzea sustapen-neurri egokitzat jotzen da.
- Gainera, jarduerak zein ekipamenduak bata bestearen ondoan eta elkarrekin harremanean kokatzeak hiri-bizitasuna eragiten du, eta honek,aldi berean, hainbat eragin positibo ekartzen ditu: segurtasunean, ongizatean, elkarbizitzan, zainketa-lanetan...

Erabilera tertziarioan azalera handiko jarduerak ezartzea saihestu.

- Jarduera ekonomikoetarako azalera osoa puntu bakarrean konzentratzeak ondorio positiboak izaten ditu, besteak beste jarduera horien aktibazioan eta elkarren arteko sinergien sorreran. Baina baditu bere arriskuak, azalera handien ezarpena horien artean nabarmenena. Izan ere, azalera handiko jarduerak gaitasun gutxiago erakusten dute tokiko garapenarekin eta gorago aipatu den hiri-bizitasuna positiboki eragiteko.
- Eremuko araudian azalera handien ezarpenaren aurrean babes-neurriak txertatzearen bideragarritasuna aztertzea proposatzen da.

Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi.

- Kaleak eta mugikortasuna atalean oinezko mugikortasunaren aldeko proposamenak egin dira, bai eta ekipamenduak eta establezimenduak kokatu diren puntuetan kotxeen presentzia (trafikoa, aparkalekuak) murriztea helburu dutenak ere. Neurri hau ez da nahikoa inguruan kalitatezko espazioak bermatzeko, baina nahitaezko abiapuntu gisa hartzea proposatzen da.

Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen inguruko ibilbideetako eta espazioetako irisgarritasuna bermatu.

- Erabilera publikoko eraikinen inguruetan Kaleak eta mugikortasuna ataleko SBIZA irizpideen taulan adierazitakoa bereziki aplikatzea proposatzen da. Horien artean dago ibilbideen maldaren inguruko gomendioa: legeak ezartzen duen %6ko maximoa onartu beharrean, proposatzen da %5ekoa ezartzea, xehetasunak iritsitakoan "soluzio ortopedikoak" txertatu behar ez izateko.
- Gainera, erabilera publikoko eraikinak topografian ezartzeko irizpide gisa proposatzen da aurreikustea sarbidea fatxada bat baino gehiagotan jartzeko aukera: neurri horrek malgutasuna handitzen eta aniztasuna sustatzen ditu, bai eraikinaren proiektuan, bai eta etorkizuneko kudeaketan ere.

5

Ondorio orokorrak

Txostenean jaso diren ondorio eta proposamen espezifikoez gain, diru-laguntzak babestu duen proiektu honen kasu partikularretik oinarrituta, hainbat ondorio orokor atera dira, epe motzera zein laburrera **udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzera** zabal daitezkeenak.

Sei esparrutan antolatu dira ondorio orokor horiek:

- Metodologia.
- Antolamendu orokorra.
- Etxebizitza.
- Kaleak eta mugikortasuna.
- Espazio publikoak.
- Ekipamendu publikoak eta lokalak.

Metodologia

Plangintza-tresnen idazketa-prozesuei dagokionez:

- Hirigintza Saitetik Udaleko beste arloetako arduradunekin prozesua partekatu beharko litzateke. Berdintasun Saileko arduradunekin lanketa partekatu hori prozesuaren hasieran abiatu behar da, Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioak eskatzen duen bezala.

Diagnostikoari dagokionez:

- Goian adierazitakoa diagnostiko-faseari ere badagokio: hala, dokumentu honen esparruari dagokionean, diagnostikoa Berdintasun Sailarekin batera diseinatu behar da. Informazioa generoaren arabera banakatzeaz gain, plangintza-tresnaren jarduketa-eremuetan (etxebizitza, garraioa, ekipamenduak...) generoaren arabera desberdinkeriak bistaratzera eta neurtzera bideratu beharko da diagnostikoa, gainera datu horiek geografikoki ere banakaturik (auzoka adibidez). Diagnostikoaren atal horretarako egitura egokia izan daiteke, adibidez, Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioak ezarria duena.

Hirigintza-arloko parte-hartze prozesuei dagokionez:

- Prozesuaren hasieran parte-hartzaileei proiektuak ezagutzera emateko saioak aurreikusi behar dira: diagnostikoak, baldintzatzaile nagusienak (araudizkoak, ekonomikoak, denborazkoak, hirigintza-tresna bakoitzaren jarduketa-esparruen ingurukoak...), jada hartuak dauden erabakiak... Horretarako, informazio espezifikoa sortzeko lanketak aurreikusi behar dira, edukiak zein formatuak hartzaileen gaitasunetara eta interesetara egokituz.
- Herritarren ekarpenak banakatu behar dira, beti. Taldeka egiten diren lanketa-saioetan, gizonak eta emakumeak bananduz, eta banakako ekarpenak jasotzen direnean, generoaz gain gutxienez beste ardatz hauek kontuan hartuz: auzoa, adina, desgaitasunak, zainketa-lanak.

Antolamendu orokorra

Oiartzungo izaera polizentrikoari dagokionez:

- Auzoetan oinarritutako izaera polizentrikoa indartzen jarraitu behar da.
- Aldi berean, auzoen arteko harremana sustatzen saiatu beharko da. Horretarako, ez da baztertu behar udalerrian berria izango den ekipamendu bat Elizalde ez den auzoren batean kokatzea.

Dentsitateari dagokionez:

- Dentsitate baxuko garapenak saihestu behar dira, ahal bada erabilerak nahastuz eta eguneroko bizitzarako behar diren ekipamenduetara oinez, bizikletaz edo garraio publikoan iristea erraztuz, horretan denbora gehiegi galdu gabe.

Etxebizitza

Nahasketari eta aniztasunari dagokionez:

- Sustapen- eta jabetza-eredu desberdinen nahasketa sustatu behar da, besteak beste sustatzaile(ar)ekin gai honen inguruko negoziatziora zuzendutako aurrelanak aurreikusiz.
- Eraikin-tipologiaren zein etxebizitza-moten aniztasuna sustatu behar da, besteak beste sustatzaile(ar)ekin gai honen inguruko negoziatziora zuzendutako aurrelanak aurreikusiz.

Beheko solairuen eta espazio publikoaren arteko harremanaren inguruan:

- Dentsitate ertain/baxuko garapenetan, azken bi hamarkadatan sustatzaileek orokortu duten estandarra da beheko solairuetan etxebizitzak jartzea eta hauei terraza handiak ematea, espazio publikoarekin ia harremanik sustatu gabe. Estandar honen aurrean alternatiba propioak irudikatu behar dira, genero-ikuspegitik onuragarriagoak (publikoaren eta pribatuaren arteko muga iragazkortuz, espazio publikoarekiko berezko zaintza sustatuz, kale-bizitasuna areagotuz...), eta orokorrean, bai eta espazio publikorako ere.
- Plangintza mailan bada ere, eskala txikiko erabakiak aurreikusi behar dira. Gutxienez: atariaren kokapena eta hauetara iristeko oinezkoen ibilbideen segurtasuna zein irisgarritasuna, garajeetako sarbideen kokapena eta horien eragina oinezkoen ibilbideen zein espazioen gainean, mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzako gelen tamaina, kokapena eta harremana, atariarekin zein kanpo-espazioarekin.
- Plangintzan eta proiektuetan alderdi hauek ziurtatzeko, sustatzaileekin negoziatzea aurreikusteaz gain, eraikuntza-ordenantzen inguruko lanketa egitea aztertu beharko da.

Orokorrean, sustatzaile publikoen sustapenetan:

- Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko ematen dituen gomendioak bere buruari aplikatzea eska daiteke.¹⁴

Kaleak eta mugikortasuna

Mugikortasun-sarearen diseinuari dagokionez:

- Herriko mugikortasuna bidezkoagoa egiteko irizpide nagusienetakoa denbora da, eta arazo bakoitzari dagokion garrantzia emateko erabili behar da: kotxe erabiltzaileen arazoak minutu gutxi batzuetakoak izaten diren bitartean, beste erabiltzaileenak (askoz) denbora gehiagokoak izan ohi dira.
- Aurreko irizpidea mugikortasun-sareari aplikatzeaz gain aparkalekuen eskuragarritasunari aplikatu behar zaio. Adibidez, diagnostikoetan aparkalekurik ez dagoela adierazten denean, funtsean denbora-arazo baten deskribapena da, minutu gutxi batzuetakoa gehienetan.
- Joan-etorrien abiapuntu eta helmuga garrantzitsuenen ezarpenean genero-ikuspegia ere kontuan izan behar da.
- Genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremuak, besteak beste: pertsona zaurgarrienen (haurrek, adinekoek...) gehien erabiltzen dituzten ekipamenduak, eremuak eta ibilbideak,

¹⁴ ["BIZITZA GUZTIETARAKO ETXEAK. Etxebizitza kolektiboko eraikinen proiektuetan Genero-Ikuspegia txertatzeko Gida"](#).

eguneroko bizitzan ohikoenak diren jarduerak eta espazioak (zainketa-lanak, eguneroko erosketa...), etab.

- Genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremu eta puntu garrantzitsuetan kotxeen erabilera soilik beharrezkoak diren joan-etorrietara murrizteko disuasio-neurriak aurreikusi behar dira: aparkalekuen eskaintza gutxienera doitzuz, joan-etorriak motelduz, galtzadak estutuz...
- Ardatz nagusietan izan ezik, sarearen diseinuaren oinarritzko irizpidea izan behar du trafikoa murriztea eta bere abiadura baretzea.

Irisgarritasunari dagokionez:

- Garapen berrietako topografiaren ezarpenean oinezkoen ibilbide nagusien irisgarritasuna lehenetsi behar da.
- Plangintzari dagokion eskalan, oinezkoen ibilbide nagusien malda maximo gisa %5a ezartzea komeni da, hurrengo faseetan hainbat tarte horizontal ezarri beharko baitira ibilbide horietan.

Aparkalekuen eskaintzari dagokionez

- Aparkalekuen eskaintzan eta kokapenean kontuan izan behar da erraz aparkatzeak trafikoa areagotzen duela.
- Aparkatutako kotxeek espazio publikoaren kalitatea kaltetzen dute, eta zenbait baldintzatan (kokapena, eremuaren tamaina), erasoei lotutako segurtasunaren pertzepzioari eragiten diote.

Espazio publikoak

Espazio publikoen antolamenduari dagokionez, herritarrei kalitatezko espazio publikoetara irispidea bermatu behar zaio, hiru eskala desberdinetan:

- Udalerri mailan, herrigunean kokatutako espazio nagusi(eta)ra.
- Auzo mailan, auzo bakoitzak kalitatezko espazio publiko bat izan behar du.
- Etxadi mailan, etxebizitzekin harremanean egongo diren hurbileko espazio publiko seguru eta atseginen sare bat aurreikusi behar da.

Kokapenari dagokionez:

- Orokorrean, saihestu beharrekoak: kokapen periferikoak, "bazterrean" edo "atzekaldean" daudenak, trafikoaren edo jarduera kaltegarrien/desatseginen eraginpean daudenak, beste jarduera edo ekipamenduekin harremanik ez dutenak...
- Orokorrean, bultzatu beharrekoak: ekipamendu publikoen sarbideekin harreman zuzenean daudenak, oinezkoen ibilbide nagusienekin lotzen direnak, ingurune/elementu naturalekin harremanean daudenak...
- Garrantzi berezia eman behar zaio genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremuei, besteak beste: pertsona zaurgarriek (haurrek, adinekoek...) gehien erabiltzen dituzten ekipamenduen inguruko eremuei eta ibilbideei, eguneroko bizitzan ohikoenak diren jarduerari eta espazioei (zainketa-lanak, eguneroko erosketa...), etab.

Naturalizazioari dagokionez:

- Parkeez gain, espazio publikoetan zoru naturalak eta zuhaitzak aurreikusi behar dira, ugari eta askotarikoak.

Espazio publikoaren nolakotasunari eta ekipamenduari dagokionez:

- Urbanizazio-ordenantzen inguruko lanketa egin behar da, genero-ikuspegia txertatuz.

Ekipamendu publikoak eta lokalak

Kokapenari dagokionez:

- Eskala edozein dela ere, herrigunearekiko, genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eraikin zein espazioekiko, edo joan-etorri nagusiekiko hurbiltasuna garrantzitsua da: ekipamenduarena berarena, sarbide(ar)ena...

Inguruko espazio publikoarekiko harremanari dagokionez:

- Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen ondoan kalitatezko espazio publiko seguruak aurreikusi behar dira. Honen inguruan, kotxeak murriztea (trafikoa mugatzea, abiadura baretzea, aparkalekuen eskaintza murriztea...) murriztea izan daiteke erabakirik eraginkorra.
- Ekipamendu publikoen eta erabilera tertziarioen inguruko ibilbideetako eta espazioetako irisgarritasuna bermatu behar da.

Inguruko eraikin publiko eta jardueretik harremanari dagokionez:

- Genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eraikin eta jardueren arteko joan-etorri zuzenak eta seguruak bermatu behar dira.
- Erabilera tertziarioen eta ekipamendu publikoen arteko harreman espazialak indartu behar dira, jarduera ekonomikoen ezarpena eta hiri-bizitasuna sustatzeko.

Bizitasun-komertzialaren sustapenari dagokionez:

- Herrigunean erabilera tertziarioan azalera handiko jarduerak ezartzea saihesten saiatu behar da plangintzaren bitartez.
- Udal-ordenantzen inguruko lanketa egin beharko da herrigunean azalera handiko erabilera tertziarioak ezartzea mugatzea edo saihestea saiatzeko.

